



- **Batis Martiarena** «Lehen dirua banuen, baina bizitzak dituen alde positiboez gozatzeko denborarik ez»
- **Agurtzane Royo** Itzulpengintzaren Euskadi Literatura saria
- **Ingurumena** Aire kutsatua arnasten dugu orobat Euskal Herrian
- **Azpitituluak eta bikoizketa** Euskararen normalizazioaren mesedean, zein hobetsi
- **Net Hurbil** Itsasontzi zaharren hondakindegia bihurtu ditugu Asiako hondartzak

Euskoa

baloreetan oinarritutako moneta
aurkeztu digute Mendi Estebanek eta Xebax Christyk





dokumentalak.com

Euskarazko dokumentalen biltegia sarean

Ostiralero lan berri bat ikusgai

Dagoeneko 100 dokumental eskura

Amerikanuak
 Anuken egia
 Arrhash, pozoina
 Banlieues. Pariseko errebotak
 Basque hotel
 Bidaia Intimoak
 Botilen hilerria
 Companys eta Agirre azken erbesterantz
 Debequatuta dago oroitzea
 Elburua Gernika
 Euskal Herria: Ezkutuko zorra
 Euskararen jatorria: Enigma europar bat
 Garrasia Saharatik
 Gudari baten egunerokoa
 Haizea eta sustraiak
 Insumisioa. 20 urte desobeditzen

Iparaldea XXI
 Irakeko kurduak, bizitza bazterbidean
 Itoitz hustu arte
 Itsasoren alaba
 Nire bizi osoa espetxean
 Nömadak Tx
 Oroitarria
 Perurena
 Pluja seca - Euri lehorra
 Sagarren denbora
 Sahara marathon
 Salda badago
 Santi Brouard. Euskal Herria Osagai. Duintasuna omen
 The Yes Men fix the world
 Tortura Euskal Herrian

...eta askoz gehiago

Zure lanen bat kanal honetan sartu nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:

multimedia@argia.com

www.twitter.com/dokumentalak

www.facebook.com/dokumentalak

argia.com

EGUZKI BIDEOAK elkarlanean





Azaleko argazkia:
DANI BLANCO
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA



Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irueta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoak: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Olatz Korta. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxa: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



NON ZER

2012ko abenduaren 23a, 2.350. zenbakia

DEABRUAREN ABOKATUA

SABINO CUADRA: «Gorringoa biziago, zapore gozoagoa du arrautzak». ARITZ GALARRAGA / 4

ASTEKO GAIA

AIREAREN KALITATEA Arnasten dugun airea, legezkoa bezain kutsatua. UNAI BREA / 6

PERTSONAIA

BATIS MARTIARENA: «Hilabetean 426 euroekin bizi naiz». REYES ILINTXETA / 12

GAIK

JOSÉ MANUEL NAREDO: «Ez dugu deshazkundera behar, birmoldatzea baizik». UNAI BREA / 18

IRITZIAREN LEIHOA

ZERGA AMNISTIA, ZERGA EGITURAREN ZULO

BELTZAREN IKUR MIKEL ZURBANO / 22

EUTSI GOIARI! UMORETSU BETI! IÑAKI MURUA / 24

UMOREA ETA HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA

KIKE AMONARRIZ / 25

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENETA / 23

TXANDAN Arraiki 2.0. ITXARO BORDA / 24

BERTSO BERRIAK Zor diegu memoria. ANE LABAKA / 25

ZIRTAK Idazle ezkutatua. IRATXE ESNAOLA / 26

ERDIKO KAIERA

AGURTZANE ROYO, ITZULPENAREN EUSKADI SARIA:

«Itzultzen hasi berriaren neurrikoa izan nuen Xukrien *Ogi butsa*». MIEL A. ELUSTONDO / 27

LITERATURA SAIOA RUIZ GONZALEZ / 32

MUSIKA IKER BARANDIARAN / 33

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 34

ALEA Zortzi titiriteroren proposamenak haurrekin balioez mintzatzeko. GARBINE UBEDA GOIKOETXEA / 35

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA JOXERRA AIZPURUA / 36

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 37

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

TERMOMETROA

EUSKOA Tokiko ekonomia garatzeko funtsezko moneta. MIKEL ASURMENDI / 39

AZPITITULUAK ALA BIKOIZKETA Hizkuntza gutxituentzat ere, azpigituluak. MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 43

KONTSUMOA Gabonetako jostailu katalogoetan, sexismoa nagusi. ONINTZA IRURETA AZKUNE / 46

EKONOMIAREN TALAIAN JUAN MARI ARREGI / 47

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 47

NET HURBIL Asiako hondartzetara doaz hiltzera gure itsasontzi zaharrak. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

SABINO CUADRA

X. legealdiko diputatu jaun txit ohoragarria.

| ARITZ GALARRAGA |

Argazkia: Josu Santesteban

«Gorringoa biziago, zapore gozoagoa du arrautzak»

Madriko abentura esplikatu zeniguke berriz, mesedez?

Ondo dago galdetzea han egoteak zerbaitetarako balio duen. Tentsio minimo bat mantenduko dugu hala, eta neurria hartuko diogu hangoari, ez baita beti erraza.

Baina ez al ziren geure eskubide nazionalak urratzen dituzten instituzio inposatuak?

Eta jarraitzen dute izaten. Horregatik bertan egiten dugun lana da, neurri batean, kontralana. Areago utzi nahi dugu agerian geure herriak jasaten duen inposizioa.

Nola, Espainia aldeko diputatuei juxtu kili-kili eginez?

Joaten ez ginelako kexu ziren lehen; orain joaten garela, talde propioa izateko aukera lapurtzen digute, eta egunero mozten eskubideak. Azkura badute, hazka egin dezatela.

Azaldu al dizu Gallardon ministroak "zuzenbide estatuaren mekanismoak" zertan diren?

Gallardonek defendatzen duen Estatuaren zuzenbidekoa baino, gehiago da zirinbidekoa. Jue-fiskalak ere kexu dira haren neurrigaberiek. Atera kontuak.

Gobernuak egin ez duena da: krisiaren ardura-dunei izen-abizenak jarri.

Banketxeek, espekulazioak, torturaz hitz egiteari utzi, eta bankariez, espekulatzailiez, torturatzailiez hitz egiten hasi behar genuke.

Banketxeak erreskatatu ondoren, hori bai.

Erreskateak bahituengatik eskatzen dira. Ez



da kasua. Banketxeek dute bahituta biztanleria. Mafiaz ari gara, eta mafiosoen.

Arrazoi zuen, beraz, Anbrosio deunak: lapur da aberatsa, edo lapurren seme-alaba.

Ateoa naiz, baina arrazoi zuen tipoa. Esaldi bakarrean laburbildu zuen Karl Marxek milaka orritan esan zuena.

A, baina eskerrak Euskal Herrian ez den halakorik gertatzen.

Euskal Rh-ak ez du lapurren aurkako anti-gorputzik. Hemen ere badira aberats-ebasleak, eta ez Negurin soilik.

Zertan gabiltza, bada, sozialean ez eta nazio eraikuntzan?

Arrautzek, gorringorik gabe, zuringoa soilik izan balute, ez zuketean erdietsiko sukaldean duten lekua. Eta gorringoa biziago, jakina da, zapore gozoagoa du arrautzak.

Atera da zeure baitako sindikalista.

Sindikalista bat ez da sen ona eta duintasun apur bat duen langilea baizik. Hortik abiatuta, antolatze beharra berez dator.

CCOO sindikatuan, adibidez?

Duela hamabost urte utzi nuen LABen sartzeko. Batasun sindikalak helburu izan behar du beti, eta garaipen handia litzateke.

Financial Times-en portadan agertzea beste?

Portada izatea polizia batek porrakada eman dizulako ez da sobera eskergarria. Nahiago nukeen biluzi integral bat. ■



euskerearen hazia zabaltzen



Gernika Zornotza Markina Durango Elorrio Eibar	97,5
Ondarroa	92,5
Bermeo Bakio	97,4
Elantxobe Aramaio	96,7
Lekeitio	98,1

Arnasten dugun airea, legezkoa bezain kutsatua

Aspalditik dugu airearen kutsadurak gure osasunari egiten dion kalteen berri, eta zenbat eta gehiago dakigun, argiago geratzen da kalte horiek uste genuena baino are larriagoak direla. Hala ere, Europar Batasunean, eta ondorioz Euskal Herrian, indarrean dagoen legediak ez dio ebidentzia zientifikoari behar beste jaramon egiten, eta bai kutsatzaileen interesei.

| UNAI BREA |

HEGO EUSKAL HERRIKO biztanleok ondo ikasia dugu gure erakundeek noizean behin gogorazten diguten leloa: arnasten dugun airearen kalitatea ona da. Begira, esaterako, Ihebek –EAEn ingurumenaz arduratzen den sozietate publikoak– aurtengo urriaren 10ean zer zioen: “Airearen kalitatea ona da Euskadin, eta lasai har daiteke arnasa”. Nola ezkondu hori Kataluniako *La Vanguardia* egunkariak aste bi lehenago emandako izenburu honekin?: “Txosten batek erakusten du europar airea arnasteak bizitza laburtzen duela”. Euskal Herrian biriketara sartzen dugun airea ez da europarra, apika? Ala *La Vanguardia*k aipatutako txostenaren egileak gezurretan ari dira? Ez bata eta ez bestea, sinpleagoa da erantzuna: gure erakunde publikoek “kalitate oneko airea” esaten dute “legearen barruko airea” esan behar luketenean.

Europar Batasunak asmoa du heldu den urtean airearen kalitateari buruzko legedian aldaketak ezartzeko, baina gaur-gaurkoz 2008/50/EC zuzentarauan jasota dago zein substantzia kutsatzaile neurtu behar den, zeintzuk diren substantzia horien gehieneko balioak, eta zein datetatik aurrera debekatuta egongo den balio horiek gainditzea. Zuzentarau hori 90eko hamarkadaren erditik eginda-

ko beste bosten batura da, eta Ekologistak Martxanek iritziz “atzerapauso handia da, ezartzen dituen gehieneko balioetako batzuk Osasunaren Mundu Erakundeak gomendatutakoak, eta are okerrago, aurrez zegoen legediak ezarritakoak baino handiagoak direlako”.

Ekologistak Martxanek *Airearen kalitatea Espainiako Estatuan 2011n* txostena argitaratu zuen urri hasieran, eta ondorioa ezin kezka-garriagoa da: Estatuko biztanleen %94k kutsatutako airea arnasten du. Paco Segura txostenaren egileetako batek dioenez, urte urte errepikatzen dira datu txarrak, baina ez da konponbiderik jartzen. Aitzitik, egoerak okerrera egin du, Ekologistak Martxanek egindako azken hiru txostenen ondorioei sinestera: 2009an, herritarren %79 zen kalitate txarreko airea arnasten zuena; 2010ean, %90.

Europar legediak kutsatzaile ugari hartzen ditu kontuan, baina *Airearen kalitatea Espainiako Estatuan 2011n* txostenak horietako bosti buruzko datuak besterik ez ditu biltzen. Zabalduen dauden bostak, hain zuzen. Eragin-kortasunagatik egiten dute, Seguraren esanetan; substantzia guztiak aipatuz gero, txostena nahaspila ulertzina litzateke. “Beraz, arazo gehien sortzen dituztenez hitz egiten dugu. Beste batzuek leku jakinetan bakarrik ematen dituzte balio txarrak”.

Bost substantzia horiek nitrogeno dioxidoa (NO₂), sufre dioxidoa (SO₂), ozono troposferikoa (O₃) eta PM₁₀ eta PM_{2,5} partikulak dira. Lehenbizikoaren kasuan izan ezik, 2008/50/CE zuzentarauak baimentzen dituen gehieneko balioak OMEk gomendatutakoak baino handiagoak dira. “La substan-

Ekologistak Martxanek Airearen kalitatea Espainiako Estatuan 2011n txostenak bost substantzia kutsatzaileen presentzia aztertu du. Horietako bakarrean egiten dute bat Europar Batasuneko legediak eta Osasunaren Mundu Erakundearen gomendioak



Bilbao

AZKEN 48 ORDUETAKO DATUAK, EUSKO
JAURLARITZAK ESKAINIAK

DATOS DE LAS ÚLTIMAS 48 HORAS
FACILITADOS POR EL GOBIERNO VASCO

AIREAREN
KALITATEA
CALIDAD DEL AIRE

LARRASKITU
Ona



MP ELECTRONICS



AIREAREN KALITATEA



Trafikoa da aireko kutsaduraren jatorri nagusia. Ondoren industria dago. Ekologistak Martxanen esanetan, elektrizitateazte sortzeko zentralak –ikatz erabiltzen duten termikoek, batez ere– eta findegiek kutsatzen dute gehien.

tzia guztiakin gertatzen da gauza bera”, azaldu digu Paco Segurak; “NO₂-arena izan zen ezarri zen lehen mugetako bat, 2001ean, baita OMEren gomendioekin bat eginez ezarri ere. Baina konturatu ziren horrek legedia betetzea zailtzen zuela, eta ordutik gero eta muga zabalagoak ipini dituzte, herritarren osasuna gutxiago babesten dutenak”. Hurrengo orriko koadroan ikus dezakezue Europar Batasuneko legediaren eta OMEk gomendatzen duenaren arteko aldea.

Osasunaren babesa ez da lehentasuna

Ekologistak Martxanen txostenak azpimarratzen duenez, europar legediak honela definitzen du substantzia batentzako muga-balioa: “Zientziaren ezagutzaren arabera ezarritako gehieneko maila, pertsonen osasunari eta ingurumenari kaltea eragozteko, prebenitzeko edo murrizteko xedez ezarria”. Kontuan hartuta zientziaren ezagutza batik bat OMEk eskatuta egiten diren ikerketetan jasota dagoela, argi geratzen da distantzia handiegia dagoela teoriaren eta praktikaren artean.

Beharbada PM partikulen adibidea da adierazgarriena: PM₁₀-en kasuan –hamar mikra baino txikiagoak eta 2,5 mikra baino handiagoak direnak–, aurreko legediak (1999) epe bi aurreikusi zituen, bata 2005etik aurrera betetzekoa, 2010etik aurrerakoa bigarrena. Lehenengo epean, urte bateko batez besteko balioa ezin izan izan metro kuboko 40 mikrogramo baino handiagoa. Gainera, eguneko muga-balio bat zegoen, 50 mikrogramokoa, urtean 35 aldiz baino gehiago gaintitu ezin zitekeena. Bigarren epean, baldintzak askoz

zorrotzagoak izan behar ziren, OMEk gomendatutakoarekin bat eginik: urteko batez bestekoa erdira jaitsiko zen (hogei mikrogramo metro kuboko), eta egun bakarreko 50 mikrogramoen muga ezin izango zen urtan zazpi aldiz baino gehiagotan gaintitu, hau da, lehen fasean baino bost aldiz gutxiago. Azkenik, ordea, 2008/50/CE zuzentarauak lehen epeko balio berberak mantendu zituen bigarreneko.

“Badirudi oreka modukoa bilatu nahi dutela”, dio Paco Segurak, “alde batean dago osasunaren babesa, eta bestean zenbait gobernuk eta enpresak egiten duten presioa”. Azken horiek neurri gogorregiak hartu behar ez izateko muga-mugan leudeke, hartara, legeak ezarritako balioak. Europar Batasun-

nean industriaren lobbyek duten presio-gaitasun ikaragarria gogorarazi nahi du Ekologistak Martxaneko kideak.

PM_{2,5}, arriskutsuenak

Azken urteetan argitara eman den ikerketa askotxok aditzera ematen duenez, PM partikulak dira aireko kutsatzaileetan kaltegarrienak,

industria mota jakin batzuek igortzen dituzten dioxina, furanoak... aparte utzita. Eta horietan, PM_{2,5} partikulek, alegia, 2,5 mikra baino txikiagoak direnek dakarte arrisku gehien. Tamaina txikiak izateak bihurtzen ditu arriskutsu, hain justu: kasu askotan zuzenean igaro daitezke odolera, birikek ezin baituzte filtratu.

Hala eta guzti ere, PM_{2,5}-ak berandu iritsi dira legedira, nolabait esateko. Izan ere, haiei buruzko ezagutza zientifikoa ez da beste substantzia batzuei buruzkoa bezain aspaldi-

PM partikulen adibidea esanguratsua da: 2010etik aurrera, urteroko batez bestekoa erdira jaitsi behar zen, OMEren gomendioekin bat eginez, baina azkenik bere horretan mantendu zen zenbait industria eta gobernuren presioagatik

Airearen kalitatea Espainiako Estatuan 2011n txosteneko zenbait datu esanguratsu

DOZENAKA KUTSATZAILE dago airean, baina Ekologistak Martxanek bost besterik ez ditu aztertzen bere urteroko txostenean: NO₂, SO₂, O₃, eta PM₁₀ eta PM_{2,5} partikulak. Horiek dira zabalduenak, eta beraz arazo gehien sortzen dutenak. Ikus dezagun zer dioen *Airearen kalitatea Espainiako Estatuan 2011n* txostenak euretako bakoitzaz:

NO₂:

Hiritan aurkitu daitekeen NO₂ gehiena NO-ren oxidazioz sortzen da, eta haren iturri nagusia autoak dira, diesel motordunak batez ere. Gainera, O₃ eta PM_{2,5} partikulak eratzen dituzten zenbait erreakzio kimikotan parte hartzen du. Nitrogeno dioxidoak arnas-aparatuari eragiten dio, bereziki biriketako alde sakonenei, eta haien gaitasun immunologikoa gutxitzen du. Umeei eta asma dutenei egiten die kalte gehien.

Legeak ezartzen duen mugaren arabera, NO₂ kontzentrazioaren urte bateko batez bestekoa ezin da 40 mikrogramo/m³ baino handiagoa izan. Horrek bat egiten du OMEren gomendioekin. Hego Euskal Herrian estazio bakarrak eman zuen hortik gorako neurria 2011n, Bilboko Indautxu auzoan.

SO₂:

80ko hamarkadan kezka gehien eragiten zuen kutsatzailea zen, baina haren intzidentzia asko gutxitu da, berokuntzarako erabiltzen diren erregaiak aldatu ahala. Hiritan SO₂ gutxiago dago beraz, baina haren kontzentrazioak garrantzitsuak dira oraindik ikatzeko zentral termikoen eta findegien inguruetan. Biriketako eta bihotzeko gaixotasunekin zerikusia duten heriotza goiztiarrei lotuta agertzen da ikerketa zientifikoetan.

Europako legediak eguneko muga bat jartzen dio airean egon daitekeen sufre dioxidoari: 125 mikrogramo/m³. Balio hori ez da urtero hiru aldiz baino gehiago gainditu behar. OMEk, aldiz, askoz balio baxuagoa dauka ezarria egun bakarrerako: 20 mikrogramo/m³, behin ere gainditu beharko ez litzatekeena. Euskal Herriko balio txarrenak Iruñean eta Zierbenan (Petronorretik hurbil) neurtu dira.

O₃:

Bere ezaugarriengatik, ozono troposferikoa kantitate handiagoetan aurkitzen da hirietako erdiguneetatik urrun, are landa eremuetan ere. Narritadura eragiten du begietan, muki-mintzetan eta biriketetan. Hainbat ikerketaren arabera, biriketako hanturarekin eta heriotza goiztiararekin zerikusia du.

Legeak 120 mikrogramo/m³-ko gehieneko balioa ezartzen du ozonoarentzat, zortzi orduko epeetan neurtua, eta urtean 25 bider baino gehiago gainditu ezin dena. OMEentzat, 100 mikrogramokoa da muga hori. Euskal Herriko 2011ko neurketen emaitzak txarrak dira eskualde guztietan, Bilbo inguruan eta Donostialdean izan ezik.

PM₁₀ eta PM_{2,5}

PM siglak erabiltzen dira airean suspentsioan dauden partikulak izendatzeko, mota askotakoak izan daitezkeenak. Halaber, jatorri asko izan ditzakete, baina trafikoa da nagusietakoa, diesel ibilgailuak batez ere. Zientzialarien ustez, PM partikulak dira gaur egun dagoen aire-kutsadura arazorik larriena. 2,5 mikratik beherakoak bereziki arriskutsuak dira. Alde batetik, hain txikiak izanda odolera iritsi daitezkeelako –PM₁₀-ak biriketetan geratzen dira beti–; bestetik, pisu txikiagoa edukita luzaroan iraun dezaketelakoa airean esekita; eta hirugarrenik, konposatu toxikoagoak izaten direlako; metal astunak, konposatu organikoak... PMak, neurri batekoak zein bestekoak, arnas-aparatu gaixotasunen, gaitz kardiobaskularren eta biriketako minbizien eragileak dira.

Alde ikaragarria dago EBko legediak ezarritakoaren eta OMEk gomendatutakoaren artean PMei dagokienez. 2,5eko kasuan asmoez ari gara, 2015. urtera arte ez baita derrigorrezkoa izango araudia betetzea: urteroko batez bestekoa 25 mikrogramo/m³-koa izango da, OMEren ustez 10ekoa behar lukeen arren. PM₁₀-entzat, berriz, legediak bikoiztu egiten du gomendioa: urtero 20 mikrogramo/m³-ko batez bestekoa ez gainditzeko dio OMEk, baina EBri nahikoa iruditzen zaio 40tan uztea muga hori. Hego Euskal Herriko eskualde guztietan, hiritan izan ezik (Arabako Lautada, Nafarroako Erribera eta Nerbioi ibaiaren behe arroa) osasunarentzat kaltegarriak diren PM kopuruak neurtu ziren iaz.



Airearen kalitatea neurtzeko kabina bat, Bilboko Europa Parkean.

koa. Haiekiko kezka beranduago piztu izanaren adierazle dira, batetik, airearen kalitatea neurtzeko estazioetan gutxien neurtzen den substantzia izatea, eta bestetik, EBn oraindik muga-baliorik indarrean ez egotea. 2015era arte itxaron beharko da horretarako, eta espero zitekeenez, legeak ezarriko dituen baldintzak ez dira izango bereziki gogorrak: urteko

batez besteko balioa metro kuboko 25 mikrogramotan kokatuko dute; OMEk, berriz, hamar mikrogramoak ez gainditzeko gomendatzen du. Aldea oso nabarmena da.

Hego Euskal Herriko datuak, OMEren gomendioen ginetik oro har

Airearen kalitatea Espainiako Estatuan 2011n txostenak lehen aipatutako bost substantzien datuak biltzen ditu, autonomia erkidegoek airearen kalitatea neurtzeko dituzten estazioetatik zuzenean hartuak. Hego Euskal Herriko 77 neurketa-gunetako datuei erreparatuta, ikusten da 2011n bederatzi aldiz gainditu zirela legeak agindutako mugak. Horien artean azpimarratzekoa da Zumarragako kabinan 61 aldiz neurtu zirela baimendutako balioetatik gorako PM₁₀ kantitateak –gogoratu balio hori gainditzeko den egun kopurua ezin dela izan 35 baino handiagoa urte berean–. Atentzioa ematen du, halaber, Nafarroako lau estazioetan gainditu zirela O₃ troposferikoaren gehieneko balioak... eta Nafarroa osoan bederatzi estazio baizik ez zegoen 2011n.

Norberak jakingo du exigentzia-maila non duen, baina ez dirudi, nolana, bederatzi legeuraketa asaldatzeko moduko datua denik.

Cadagua Barrenako Usainen Mahaia: kutsadura usain arazo huts bihurtu

2010EKO HASIERATIK HONA, Barakaldoko eta Bilboko bederatzi auzo elkarte Cadagua Barrenako Auzokide Koordinakundean bildu dira, eskualdeak jasaten duen kutsadurari, eta batez ere airekoari, aurre egiteko asmoz. Inguruko enpresek (Zabalgardi, Sader, Profusa, Bilbaina de Alquitrane eta Sebería Bilbaina) sortutako arazoak zirela-eta, urtetan zehar auzokideen salaketak pilatuz joan ziren, eta azkenean erakundeek mugitu egin behar izan zuten. Horrela jaio zen, 2010eko apirilean, Usainen Mahaia deiturikoa. Auzo elkartekin batera, enpresetako ordezkariak, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Osasun sailak eta Bilbo eta Barakaldoko udalek osatzen zuten.

Herritarrek hasieratik protestatu zuten organo sortu berriari emandako izendapenarengatik.

Arartekoari bidalitako idatzi batean adierazi zuten, “ez geunden batere ados hain ageriko ingurumen arazoak usain kontu huts bihurtzearekin”. Alta, Usainen Mahaia patua hasieratik erabakita zegoen. Lehenengo bilerarako Mahaia Alde Teknikoak prestatu zen txostenak garbi zioen: ez zegoen zantzurik pentsatzeko eskualdeko airearen kalitatea txarra zenik. Kiratsa zen arazo bakarra, eta hori konpontzera bideratuko zituzten indarrak.

Bi urte eta lau bilera eta gero egin zuten Usainen Mahaia, joan den martxoan. EHUko Ingeniaritza Kimiko eta Ingurumen Sailak egindako azterketa batek ebatzi zuenez, eskualdeko kiratsaren jatorria konposatu organiko hegazkorrik (KOH) dira: bentzenoa, naftalenoa, xilenoa... Batez ere inguruko enpresek igorritako-

ak. Substantzia multzo horren barruan, bentzenoa da araututako bakarra –horrek ez du esan beste guztiak kaltegarriak ez direnik–, eta EHUko txostenaren arabera, ikerketaren aurreko bost urtetan bentzeno kantitateak behin ere ez zuten gainditu legeak ezarritako muga.

Hori nahikoa izan zen Arantza Leturiondo Ingurumen sailburuordeak Mahaia lana amaitutzat emateko. Auzokide elkarte batek eskatu zuten aurrerantzean Airearen Kalitatearen Mahaia izena eduki zezala, eta maiztasun finkoz –eta askoz handiagoz– bildu zedila. Jaurlaritzak ez zuten proposamena aintzat hartu, ez baitzuen kutsadura arazo esanguratsurik ikusten eskualdean.. Azkenean, tximinia bat aldatzea izan zen Usainen Mahaia bi urteko ibilbidearen emaitzarik aipagarriena.

Alde horretatik, bidezkoztat jo dezakegu gure airearen zaindariak mezu lasaigarriak zabaltzea aldiro. Kontuak asko aldatzen dira, ordea, legediaren betaurrekoak erantzi eta OMEren gomendioena jantziz gero: Hego Euskal Herrian erruz arnasten dugu “zientziaren eza-gutzaren arabera” kaltegarria den airea. Batik bat, eta Ekologistak Martxanek bere txostenean aztertutako bost substantziei gagozkiolarik betiere, PM partikulek eta ozono troposferikoak kutsatzen dute Ihebek lasai hartzeko gomendatzen digun euskal aire ona.

Ezin hemen datu guztiak laburbildu, baina batzuk aipatzea merezi du. PM2,5-etatik hasi gara: esan dugunez, gutxien neurtzen den kutsatzailea da. 33 estazioan baizik ez dira jasotzen haiei buruzko datuak. Bada, horietako 27tan OMEk gomendatzen duen urteroko batez besteko balioa gainditu zen.

PM10-ei dagokienez, OMEk ontzat ematen duen urte baterako batez bestekoa gainditu zen Hego Euskal herriko ia eskualde gehienetan. Espero zitekeenez, Bilbo eta haren inguruak dira eremu kutsatuena, trafiko handiaren eta jarduera industrialaren baturak eraginda. Badira beste puntu beltz batzuk: Goierri izenarekin ezagutzen den eskualdeko lau kabinek (Azpeitia, Zumarraga, Beasain eta Tolosa) osasunerako kaltegarriak diren

PM10 batez bestekoak neurtu zituzten. Baita Iruñeko hiru estazioetatik bik ere. Dena den, PM10-engatik baino SO₂-arengatik nabarmen-tzen da nafar hiriburua: hiru estazioen batez bestekoa eginda, hamazazpi aldiz gainditu zen egun baterako gehienezko balioa OMEk dio hori ez litzatekeela urtean hiru aldiz baino gertatu behar.

Mezu lasaigarriek errealtate latza ezkutatze-ko funtzioa baino ez dute, ekologistek salatzen dutenez. Euskal Herriko daturik ez dugu eskuratu, baina bai Espainiako Estatu-koak: kutsadura atmosferikoak urtero 20.000 inguru heriotza goiztiaz eragiten duela kalku-latu da. Europar Batasunean, 400.000, eta kalkulua Europar Batasunak berak egin du, ez GKE batek. Komeni da esatea egin dugun errealtatearen deskribapena seguruenik kon-terbadoregia dela, arrazoiak baitaude bene-tako egoera are larriagoa dela pentsatzeko. Beste erreportaje baterako emango lukete, esaterako, neurketetan egiten diren irregular-tasunek. Baina dakiguna nahikoa da, Paco Segurak nabarmendu nahi duenez, orain artekoak baino neurri zorrotza-goak hartzen hasteko. Abiapuntu egokia izango litzateke, hau sina-tzen duenaren ustez, txarrari “on” ez deitzea. ■



elkar libbuk
euskaraz dakien eReaderra
elkar-en eskutik








elkarlibbuk.elkar.com
www.elkar.com

elkar



BATIS MARTIARENA

«Hilabetean 426 euroekin bizi naiz»

Batisen egoera gero eta arruntagoa da.
Inork eta ezerk ezin digu ziurtatu gu hurrengoak ez garela izanen.

| REYES ILINTXETA |

Argazkiak: Dani Blanco

Gazte joan zinen etxetik. Arazorik bazenuen?

Gaizki moldatzen nintzen aitarekin, besteak beste, euskaraz hitz egitera behartzen gintuelako. Gerrikoarekin jo eta guzti egiten gintuen. Ondorioz bai berari baita euskarari ere ezinikusi handia hartu nien. Denak nirekin euskaraz aritzen ziren eta nik denei erdaraz erantzun. 21 urte nituenean, jada Iruñean bizi nintzela, jabetu nintzen aitaren izaera horretan euskarak ez zuela batere errurik, hizkuntza eskolan izena eman eta urte eta erdian titulua atera nuen. Geroztik hamar urtez aritu nintzen euskarazko klaseak ematen AEKn eta IKAn. Antsoingo eta Barañaingo eskalategien sorreran parte hartu nuen. Esan daiteke euskara gorrotatzetik izugarri maitatzera pasa naizela.

Historia gogorra...

Gure aita zenaren familia Uharte Arakildik zetorren. Bere ama gaztetan haurdun gelditu eta herritik alde egin behar izan zuen. Neska-me hasi zen lanean Gipuzkoan negozioak zituen familia batekin eta hori dela-eta aita Tolosan sortu zen. Baina amonak ez zuen aurrerabiderik ikusten eta Zizurkilgo umezurtz-etxean utzi zuen semea. Egun horretan bertan bera eta beste haur bat Amasako baserri batera eraman zituen familia batek. Erabat analfabetoa zen eta izugarritzko konplexuak zituen, soldadutzan, lantegian... izugarri gaizki pasatu baitzuen. Gure amarekin ere oso harreman txarra izan zuen. Bolada batez edanera emana ibili zen. Berak ez zuen maitasunik jaso txikitan eta ez zekien hori ematen. Lau senide gara eta ama izan zen hazi eta hezi gintuena. Amarekin oso harreman ona dut.

Hiru urte daramazu lanik gabe, baina zenbat enpresatan aritu zara?

Hogeita hamabost enpresatan. Lehena erai-kuntzan. 17 urterekin etxetik alde egin eta Iruñera etorri nintzenean, ostiral batean iritsi eta astelehenean hasi nintzen lanean. Horretaz gain iturgin moduan, euskara klaseak ematen, Mihiluze euskalategian atezain, Vergel zahar etxean, uda garaian suhiltzaile, posta zerbitzuan banaketari, kamioi eta autobus gidari aritu naiz, kafetegi bat jarri genuen... Gehienetan nahiko ongi moldatu izan naiz. Azkeneko aldian autobus txofer aritu nintzen. Lan gogorra zen zinez: goizeko 4:30ean jaiki eta arratsaldeko 18:30ean autobusa apartatu. Ez denbora guztia gidatzen, baina bai telefonoaren menpe. Jardunaldi erdia egitea proposatu nion enpresari, baina esan zidaten hori ez zela posible. Ni ez nengoen prest lana besterik ez egiteko. Gainera bazegoen enpresan neska bat lanaldi osoa nahi zuena, beraz kontua eskatu eta alde egin nuen. Ongi irabazten nuen, baina nahiago nuen diru gutxiago eta denbora gehiago izan. Saltseroa izan naiz beti.

426 euro hilabetean. Hori ez da ezta lanbideen arteko gutxieneko soldata ere.

Langabezia saria kobratu dut hori agortu arte eta orain berriki 52 urtetik gorakoentzako prestazioa eskatu eta hasi naiz kobratzen, 426 euro. Horrekin bizi naiz. Orain legea aldatu egin da eta 55 urtera igo dute laguntza hau eskatzeko adin muga. Eskerrik nik garaiz eskatu nuela. Oinarritzko errenta eska nezakeen ere, baina oso baldintza gogorak dira eta gainera orain dirurik ez dago.



NORTASUN AGIRIA

Batis Martiarena 1959ko urriaren 15ean Donostian sortu eta 17 urtera arte Hernanin bizi izan zen. Orduan etxetik alde egin eta Iruñera joan zen bizitzera. Geroztik hogeita hamabost enpresatan baino gehiagotan aritu izan da lanean. Egun 52 urtetik goitiko langabeentzako diru-laguntza jasotzen du: 426 euro hilabetean, eta horrekin bizi da. Diru gutxi baina denbora asko du benetan gustuko dituen gauzak egiteko. Barañainen eratu duten Hipotekek Kaltetuen Plataformako talde berrian ari da lanean buru-belarri, besteak beste.

Nola bizi zara diru horrekin?

Ohitu egin naiz horrela bizitzen. Etxebizitza ordainduta daukat. Auto zahar bat daukat, hori ere ordainduta. Nire gastuak gasa, argindarra, ura, komunitateko gastuak, aseguruak, telefonoa eta janaria dira. Badaramat urtebete baino gehixeago eta egia esan ez dut gaizki bizi afera hau, honek ematen baitit bizitzaren beste aldeak gozatzeko aukera. Estu-estu ibiltzen naiz hilabetea bukatzeko eta hori hala da derri gorrez, gustatu ala ez, baina beste aldetik gauza asko egin dezaket: mendizalea naiz, Hipotekek Kaltetutakoan Plataforman aritzen naiz eta giza harremanak lantzeko aukera ematen dit. Oso garai polita bizitzen ari naiz.

BATIS MARTIARENA

Ongi elikatu diru gutxiarekin

“Ogia egiteko makina daukat eta horrekin bizkotxo moduko bat egiten dut Muesli eta zereal pila batekin, izugarritzko energia ematen duena. Eta eskerrak horri, bestela mendian, adibidez, ez dakit nola ibiliko nintzen!”.

Seme-alabarik ez duzu. Alde horretatik beste batzuk baino lasaiago?

Garbi izan dut betidanik ez nuela ezkondu behar eta seme-alabarik ere ez nuela izan behar. Eta ez naiz batere damutzen. Agian oso egoista naiz, baina lau egun bizi behar badugu nik ez dut seme-alaben menpe eta haien zerbitzura bizi nahi. Ez dakit nondik etorriko zaidan ideia hau. Beharbada nire ama gogoratzen dut egoera hartan. Orain banabil bikote batekin baina bakoitza bere etxean, bera bere semearekin eta ni nire etxean.

Askok begiratzen dituzu prezioak?

Beharko! Mendizalea naiz eta elikadura asko zaintzen dut. Barazkiak, lekariak eta pasta jaten dut gehienbat eta, noizbehinka, arraina eta haragia, baina oso gutxi. Urteak daramazkit horrela.

Haragi gutxi, prezioarengatik?

Prezioarengatik eta baita behin pentsua nola egiten zuten ikusi nuelako. Txofer aritu nintzen garia eta artoa garraiatzen. Egun batean pentsua egiten duten lantegi batean kiratsa zegoen. Zokomiran hasi eta nondik zetorren ikusteko parada izan nuen: animalia hezurrak zituzten pilaturik gero artoarekin nahasteko. Ikaragarria eta nazkagarria iruditu zitzaidan. Arraina nahiago izaten dut, baina hori ere garesti dago eta itsasoak ere gero eta zikinago. Niri sukaldean aritzea gustatzen zait. Gozitzen dut eta diru honekin ahal dudana egiten dut.

Gure gizartean gehiegi baloratzen ditugu gauza materialak?

Grina hori gaixotasuna da. Nik uste birplanteatu egin behar dugula hori. Bide horretatik jarraituz gero, etorkizunik ez dugu. Nondik gatozen pentsatu behar dugu, baita hirugarren munduan egiten ari garen espolioazioan ere. Hazkunde ekonomiko horretan, zoriontsuagoak gara? Ni behintzat inondik ere ez. Edukitzeko grina horrek ez zaitu inora eramaten. Orain nire pelikula politagoa da. Lehen dirua banuen, baina bizitzak dituen alde positibo asko eta asko bizitzeko denborarik ez.

Zaila da gutxiagorekin bizitzen ikastea?

Bai, horregatik etorkizunari begira planteamendu berriak egin behar dira. Baina nire galdera da: jendea aldatzeko prest dago? Gaurko gazteek oso etorkizun beltza dute, nire ustez. Frankismoaren garaia ere ezagutu nuen eta eskasia zen nagusi gure etxean. Sei ginen soldata bakarrarekin. Horrek ematen dizu eskarmentua moldatzen ikasteko. Lanbide ugari izan ditut, beti prekario samar eta beti moldatu izan naiz. Kontsumoaren barru horretan gutxi mugitu naiz. Bidaiaren bat edo beste egin izan dut baino askoz gehiago ez. Eskerrak horri. Baina gazteak metamorfosi hori egiteko gai izango ote dira? Ez dira depresioan eroriko? Haiek jaio zirenetik beste modu batera bizitzen ohitu dira eta zaila dute benetan. Onetik txarrerara pasatzea oso zaila da.

Okerrago ikusten duzu zeure burua hemendik hilabete batzuetara? Esaten dute agian zuk jasotzen duzun laguntza hori ere kenduko dutela.

Bai beldur hori badut. Eta perspektibak ikusita, kobratzen dudana kentzen badute agian kanpora joan beharko dut lan egitera. Beti egongo da horretarako aukerarik, Mexikora joan edo Latinoamerikako beste toki batera eta bizimodua atera handik edo hemendik.



Foie plantxan

Bartolo
taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan
aukera zabala

Fermin Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com

Etxe kaleratzeak

“Bitxia da, baina alarma soziala pizten denean, zorra gelditu egiten da. Ez dakigu etorkizunean zer gertatuko den, baina momentuz geldirik uzten dute. Kezkagarria da, jendeak ez dakielako zer gertatzen den bankuek ez dutelako ezer esaten. Damoclesen ezpata beti dute buru gainean. Kaleratzea ekiditen dugu momentuz, baina ezin da jakin bihar edo etzi ez ote diren etorriko”.

Orain langabezian zaude. Lan eskaintzarik izanez gero, hartu egin beharko zenuke diru-laguntza hau kobratzen jarraitzeko?

Ez nago behartuta eskaintzen didatena hartzera. Dena den, hiru urte hauetan niri ez didate ezer eskaini enplegu bulegotik. Badira web orri batzuk lanpostuen orrazketa egiten dizutenak, zuri interesatzen zaizkizun lanen bila. Halere, ez da ezer ateratzen.

Barañaingo Hipotekak Kaltetuen Plataforma duela gutxi eratu duzue.

Duela hiru hilabete. Harremanetan jarri ginen Iruñea eta Burlatako plataformakoekin eta abiarazi genuen. Harremanak ditugu Antsoain, Tuter, Berriozar eta Sakanako taldeekin ere. Zenbait bilera egiten ditugu baina, gehienbat, internet bidez dugu harremana. Eskerrak kaltetu gutxi dauden hemen, oraingoz bederen. Kalkuluen arabera %10 besterik ez da laguntza eskatzera etortzen dena. Zergatik ez gehiago? Eskaintza polita da: laguntza, presio sozial ez bortitza. Nire ustez gehienak kanpokoak dira eta uste dute gehiago dutela galtzeko irabazteko baino. Halere, hemengo jende gero eta gehiago dago kaltetua gaur egun.

Gaizki pasatzen ari den jende asko ezagutzen duzu?

Familia batzuk oso gaizki daude. Tratu txarrak, dirurik ez, haur txikiak... Denetik ikusten da. Orain adibidez, bada hemen Barañainen neska bat hiru seme-alabaren ama. Senarrak tratu txarrak ematen zizkion eta azkenerako etxetik alde egin zuen. Neskak Eroskin egiten du lan. 1.200 euro kobratzen du hilean eta horietatik 1.000 ordaindu behar dio Euskadiko Kutzari pisuaren hipotekarengatik. Egoerak behartuta kutxakoekin hitz egitera joan eta “gabezia” eman zioten, hau da, maileguaren kapitala alde batera gelditzen da bi urtez eta soilik interesak ordaindu behar ditu, baina horiek 600 euro dira! Egoera latza. Guregana etorri da laguntza eske. Gu orain joango gara Laboralekoei esatera gabeziaren formula kasu honetan ez dela nahikoa eta eskatuko diegu pisua onartzea zorraren truke.



Emakumea erabat beldur da. Alokairu soziala egokiena izango zen bere kasuan, baina ez da ausartzen hori Kutzari eskatzera bere lana ez duelako arriskuan jarri nahi.

Bada hemen beste familia bat, ekuadortarra; hiru haur dituzte eta txikiak %85eko minusbaliotasuna du. Senarra langabezian dago, amak zer edo zer kobratzen du baina



AZKEN HITZA

Mendia

“Hasieran, adin honekin eta lanik gabe neure burua ikusi nuenean oso krisi handia izan nuen. Eskerrak oso harreman onak nituela jendearekin eta lasaitzea lortu nuen. Orain nire egoerari ez diot buelta gehiegi ematen. Soinketa lekura astean hirutan eta asteburuetan mendira joaten naiz, penak kentzeko-edo, ez dakit. Bi mendi talderekin ibiltzen naiz: igandeetan Iruña inguruan lasai-lasai mugitzen gara, giza harremanak lantzen, eta bestearekin, larunbatetan mendi handietara joaten gara, elurretara, soka eta kranpoiekin, kanalak irekitzen... Asmoa da udaberrian Mont Blanc-era joatea. Diruz estu-estu, baina moldatzen naiz. Nahiago dut ez pentsatu eta momentua bizi. Bizitzea da garrantzitsuena eta gero gerokoak. Gainera, ikaragarri azkar aldatzen ari dira gauzak egunetik egunera”.

denbora gutxirako du... Izugarria. Plataformaren aldetik, eta inplikatuak nahi badute, egoera muturreraino eramatearen aldekoak gara. Kaleratzea behartzera jotzen dugu. Bankuei esaten dieguna da zorraren truke ez pisua ez ezer, kalera bota ezazue familia ausartzen bazarete. Hori muturreko egoera da, oso gogorra eta bortitza denontzat, baina tamalez, eraginkorra. Izan ere, orain banku eta kutxa askok onartzen dute nahiko erraz etxea zorraren truke. Guk hurrengo urratsa eman nahi dugu: entitate hauek dituzten etxebizitzak alokairu sozialaren prezio egokian eskuratu gutxien duten familientzat.

Banketxeentzat gogorra da jendea aurrean protestaka ikustea, ezta?

Gaur egun, jada, banku guztiak etxea zorraren truke ari dira onartzen. Agian pisuak saltzeko aukera berriak ikusten ari direlako. Nik susmoa dut aurkitu dutela negozio bide berri bat: txinatarrei, errusiarrei, kanpotarrei etxeak saltzea... Ez dakit. Kaltetuak negarez ateratzen dira bankutik, oso jarrera gogorra erakusten dietelako. Guregana etor-

tzen direnean laguntzen diegu bankukoekin hitz egitera. Orduan aldaketa dator. Galde-tzen duten lehenbiziko gauza da ea nortzuk garen gu. Plataformakoak garelako aditzen dutenean aldatzen dituzte jokamoldeak. Caja Navarra zenean eta BBVA-n hasieran tratu txarrak ematen zizkiguten, iraindu eta kalera botatzen gintuzten. Orain, presio soziala dela medio, jarrera erabat aldatu dute. Caixak, adibidez, beste jokamolde bat du. Badute zorren inguruko aferetarako arduradun bat eta horrek bere bulegora sartzerako gonbidatzen gaitu esanez afera konpontzeko prest daudela.

Baina arazoa ez da hor amaitzen...

Txosten bat egiten dute eta gorago dagoen beste departamentu batera bidali. Horrela zabaltzen da bizpahiru hilabeteko negoziazio prozesua. Dena den, zorra kentzea lortzearekin ez da amaitzen arazoa: etxerik gabe, nora jo? Saiatzen garena da alokairu sozial egokiak lortzen. Kasu batzuk lortu dira jada eta horraino iritsi nahi dugu. ■



iRUnAZARRa
TaBERna • JaTeXea

Merkaderes kalea, 15 · 31001 IRUÑA (Nafarroa)
T 948 22 51 67 · info@irunazarra.org · www.irunazarra.org

INAKIBEREZIARTUA
Enbalajeak · Biltegiatzea eta Logistika · Zerra eta eraikuntza

25 urte baino gehiago paketatze industrialaren sektorean


Jauregi auzoa, 75 · HERNANI · (Gipuzkoa) · ☎ 943 552 828
www.inakibereziartua.com · mjm@inakibereziartua.com

doku sarea

Hilero dokumental bat proiektatuko da Euskal Herriko taberna, gaztetxe, kultur etxe eta euskaltegietan, guztiak euskaraz edo euskarazko azpidatziekin.

Anima zaitez zure herrian antolatzerara!

HILABETE HONETAN



MORIR DE DIA

Transiziotik gaur egun arteko Kataluniako historia bere alde izkutu batetik begiratuta: heroína. Kontrakultura eta giro politikoko pertsonai garrantzitsuenetarikoen agerpenak Pau Malvido, Mercè Pastor, Pepe Sales edota Juanjo Voltes adikzioak markaturik dagoen bizi baten erronkaz mintzo zaigu, Francoren heriotzarekin hasten dena eta gaur egun arte heltzen dena.

- > Laia Manresa, Sergi Díes
- > Estudi Playtime, Únicamente Severo
- > 2010


HARREMANETARAKO

DATOZEN EMANALDIAK

BRAD. BESTE GAU
BAT BARRIKADETAN



ESKUTUKO ZORRA



EGUZKI BIDEOAK
948 211 537 / 608 928 631
dokusarea@eguzkibideoak.info
www.eguzkibideoak.info

JOSÉ MANUEL NAREDO

«Ez dugu deshazkundera behar, birmoldatzea baizik»

Gijón (Espainia), 1942. Ekonomialaria eta estatistikoa. Alor ugarietan egin ditu ekarpenak José Manuel Naredok, ekonomia ekologikoa Espainiako Estatuan daukan egile garrantzitsuenetakoak: landa-eremuko ekonomian, hirigintzan, finantza gaietan, higiezin burbuilan... Irailean adostu genuen elkarriketa honetarako hitzordua, EHUk antolatutako Rio+20, garapen sustengarritik ekonomia berdera jardunaldien kariatara Bilbora egin zuen bisita aprobetxatuta. Naredo bera izan zen hizlarietako bat, igarriko zenutenez.

| UNAI BREA |

Argazkiak: Iñigo Azkona

Bilbon esan zenuen hobe genukeela Rio+20ren ordez Stockholm+40 egin izan balitz.

Hala da. Badirudi Stockholmen 1972an egingako Nazio Batuen Goi-bilera ahantzarazi nahi dela, 1972ko gailur haren eta 1992an Rio de Janeiron egindakoaren arteko inboluzioa ezkutatu nahian, nonbait.

Zergatik inboluzioa?

Stockholmen askatasuna, berdintasuna eta ingurumena ziren helburuak; Rio 92n, berriz, ingurumenaz baizik ez zen hitz egin. Stockholmen esan zen Lurra hondatzearen arrazoia hazkundera zela; Rion ez ziren gauza biak lotu, kutsaduraz besterik ez zen hitz egin. Stockholmen baliabideak babestea adostu zen; Rion garapen jasangarria ezarri zen helburu bakartzat.

Gaur egungo ikuspuntutik harrigarria da Stockholmen gauza horiez hitz egin izana.

Kontuan hartu behar da gailur hura zein tesuingurutan egin zen: 1971n Erromako Klubak hazkunderaren mugei buruzko txostena argitaratu zuen. Garapenaren eta kontserbazioaren zaleak elkarren aurkako lehian zebiltzan, eta hazkunde kontzeptua ezbaian zegoen.

Haatik, Rio 92n ez ziren oso kontuan hartu hazkunderaren mugak. Zer gertatu zen hamarkada bi horietan?

1972ko gailurra petrolioaren krisi beteetan egin zen. Baina ondoren petrolioaren prezioa jaitzen hasi eta hazkunderaren mugei buruzko eztabaida alboratzen hasi ziren. Eta batez ere, garapen jasangarria kontzeptua sortu zen. Garapenaren eta kontserbazioaren aldekoen artean kontraesana baldin badago –eta hori

zen 70eko hamarkadan kontraesan nagusia–, sor dezagun garapen jasangarria eta denak pozik. Kontzeptu hori oparia da politikari eta enpresa-jabeentzat, baina horren ordaina da edukirik gabe uztea, zeren garapenak “hazkunde” esan nahi badu, eta mundu fisikoarekin zerikusia badu, definizioz ezin du iraun. Papera eta arkatza hartzea aski da horretaz jabetzeko. Stockholmen esan zen hondatze ekologikoa hain justu hazkunderaren ondorioa zela, eta 92an hori saihestu eta ingurumenaren kalitatea zaintzeko neurriez hitz egin zen, baina hazkunde ezbaian jarri gabe. Are gehiago, bazirudien ingurumena zaintzeko hazkunde ekonomikoa egon behar zela. Jatorrizko planteamendua erabat hankaz gora ipini zen.

“Stockholmen, 1972an, esan zen hondatze ekologikoa hazkunde ekonomikoren ondorioa zela. 1992an, berriz, ingurumena zaintzeaz hitz egin zen, baina hazkunde ezbaian jarri gabe”

men esan zen hondatze ekologikoa hain justu hazkunderaren ondorioa zela, eta 92an hori saihestu eta ingurumenaren kalitatea zaintzeko neurriez hitz egin zen, baina hazkunde ezbaian jarri gabe. Are gehiago, bazirudien ingurumena zaintzeko hazkunde ekonomikoa egon behar zela. Jatorrizko planteamendua erabat hankaz gora ipini zen.

Zuk esana hau ere: nagusi den ikuspuntu ekonomikoa –ikuspuntu ekonomiko arrunta, zure



hitzak erabilia— Lurraren arazo ekologikoak ezkutatze funtzioa du, gero eta nabariago.

Bai, zentzu honetan: ikuspuntu ekonomiko arruntak erredukzionismo monetarioaren arabera jokatu du. Ekonomia berdeak ahal beste zabaldu du diruaren neurgailua, kanpogan geratzen zitzaizkion elementuak —mundo guztiak “ingurumen” esaten dion hori— bereganatzeko. Eta bi aukera sortu ditu horretarako: bata, “kutsatzen duenak ordaintzen du” printzipioa; bestea, “kontserbatzen duenak kobratzen du”. Biak dira erraz saltzekoak, itxura batean ez diote inori kalterik egiten. Eta egia da, kalterik ez dute egiten, baina ekonomiaren erredukzionismo monetario horri lehentasuna emateak bazterrean uzten ditu beste ikuspuntu batzuk. Bestalde, kontuan hartu behar da lanabes monetarioak oinarri gabekoak direla ez badago kudeatu beharrekoren ezagutza sendoa.

Esaterako?

Ura, adibidez. Zehatz-mehatz jakin behar da nork kutsatzen duen, tarifak horren arabera ezarriko badira. Baina kutsatu ez eta baliabidea agortzen duenak, ez du ezer ordaindu behar? Eta zer ordaindu? Tasa bat, badaezpada egindako kaltea konpontzerik dagoen? Edo isun bat, nekez konpondu daitezkeen kalteen kasuan (metal astunekin kutsatzea, barbarako)? Esan nahi dudana da printzipio hori praktikara eramateak gertatzen denaren oso ezagutza handia eskatzen duela. Eta dena

“Ekonomia berdeak bi aukera sortu ditu: **‘Kutsatzen duenak ordaintzen du’ eta ‘Kontserbatzen duenak kobratzen du’.** Horrelako adabakiek erakusten dute ezikusierena egiten ari garela hondatze ekologiko eta sozialaren sakoneko arrazoioren aurrean”.

dela, arazo zehatzak mota horretako adabakiez konpondu nahiak erakusten du ezikusierena egiten ari garela hondatze ekologiko eta sozialaren sakoneko arrazoioren aurrean.

Zeintzuk dira arrazoi horiek, zure ustez?

Erredukzionismo monetarioa, batez ere. Eta gainera, eztabaidarik gabe onartzen dela balorazio eredu bat, baliabide naturalen erauzketa-kostua kontuan hartzen duena, baina ez haien berrezartzea. Ondorioz, dena da poza eta optimismoa. Atera dezagun petrolio lasai! “Energia berriztagarriak ez dira-eta lehiakorrak!”, esaten dute. Horrek eraman gaitu planetako baliabideen funtsa hondatzera, eta entropia handitzera. Balorazio mota hori Antonio Valerok eta biok



“Deshazkundera handia da honezkerok, eta sistemak ematen digu. Beraz, deshazkundera hutsa ez da gakoa, zerbait gehitu beharko zaio. Bestela, zeren deshazkundera eskatuko dugu? ‘Energia kontsumoarena’, esango du batek; ‘baina, energia berriztagarriena ere bai?’; ‘a, ez, berriztagarriena ez’. Gauza batzuek hazi egin beharko dute beste batzuk gutxitzen diren bezala”.

“notarioaren arau” deitu diogunaren arabera, gero eta asimetria handiagoa dago prozesuen balio monetarioaren eta kostu fisiko eta humanoaren artean. Zenbat eta kostu fisikoa handiagoa, zenbat eta lana nekezagoa, orduan eta balorazio monetario txikiagoa. Osagai horiek guztiak elkartzeak ematen digu lurralde eta gizarte-zatiketa, ipar-hego arraila. Gero, atzetik dator marko instituzionala, jabego eskubideen desoreka bermatzen duena. Badirudi erakunde hierarkiko horiek (alderdi politikoei, enpresa kapitalistek) berez eraikiko dutela banako libre eta berdinez osatutako jendartea. Kontraesan absurdua da. Horiek dira oraingo egoerara ekarri gaituzten sakoneko arazoak. Jakina, jokoa arau horiekin ezin beste inora iritsi.

Bilbon esan zenuenez, deshazkundera iritsi zaigu jada, baina sistemaren eskutik.

Hazkundera hitza erredukzionismo monetarioi dator. Hazkundera, zerena? Bada, errenta nazionalerako agregatuena; agregatu monetarioa, azken batean. Hazkundera ez du agregatu horiek haztea beste esanahirik. Aldiz, ikuspuntu alternatiboa dimentsio askokoa da, eta ez dago aldagai bat zeinari heldu eta haztea edo deshaztea ona dela esan baitezakezun. Kontua da ekonomia arruntaren ia mende beteko lan teorikoa behar izan dela hazkundera ekonomiko esaten zaion hori gauza ontzat hartua izan dadin, eta oso erreferentzia kuantitatibo zehatzak ditu: kontabilitate nazionalak. Beste aldean ez dago kontrako esangura-

dun erredukzionismorik. Hazi eta deshazki hitzak, bere horretan, aditz soilak besterik ez dira; zer subjektu erantzten diozun, orduan izango dira onak edo txarrak. Nik uste dut “deshazkundera” hitza hazkunderaren kontrako erabilteza egokia izan daitekeela, esaterako, arreta bereganatu nahi duen argitalpen baten izenburu gisa, baina ez dauka, oinarrian, eraikuntza teoriko-kontzeptualik.

Kontzeptu desegokitzat jo duzu, izan ere.

Viento Sur aldizkarian kaleratutako artikulu batean esan nuen hori. Une honetan sistema ari zaigu deshazkundera barra-barra oparitzen, ez arlo monetarioan murriztu daitekeen guztia (gizarte laguntzak, soldatak...) murriztuz bakarrik, arlo fisikoan ere bai. Madrillgo eta inguruko hirietako metabolismoa kalkulatu, neurtu egin dut %50 gutxitu dela materialen eskaria per capita. Hortaz, itsu-itsu deshazkundera hitz egiten jarraitzea, dagoeneko hemen dugularik... Deshazkundera handia da honezkerok, eta sistemak ematen digu. Beraz, deshazkundera hutsa ez da gakoa, zerbait gehitu beharko zaio.

Zer?

Nik diot ez dugula deshazkundera behar, birmoldatzea baizik. Bestela, zeren deshazkundera eskatuko dugu? “Energia kontsumoarena”, esango du batek; “baina, berriztagarriena ere bai?”; “a, ez, berriztagarriena ez”. Gauza batzuek hazi egin beharko dute beste batzuk gutxitzen diren bezala. Erreferentzia modura erabil litekeen gauza bakarra planetaren entropiaren gehikuntza da. Antonio Valero eta biok saiatu gara neurtzen Lurraren gehieneko entropiaren limitea, industria-zibilizazioak horrantz darama-eta planeta hau. Ikuspuntu horrekin bai, esan dezakezu “bada, planetaren hondatzea deshazki dadila”. Baina eremu horietan mugitzen direnek ez diete jaramon handirik egin lan horiei.

Nork, deshazkunderaren aldeko mugimenduak?

Bai. Ez dut igartzen aberastasun teorikoa handitu denik. Deshazkundera lelo anbiguotzat dut, eta batez ere, desegokitzat. Gutxienerako erakargarritasuna behar da jendea mugiarazteko, metaforen eremuan indarra eduki behar du, eta gauden-gaudenean, sistema oparitzen ari zaiguna ikusita, jendea deshazkunderaren alde mugituko dela pentsatzea... Hara! Hori da-eta egunero gainera datorkiguna! Definizio teoriko eza eta une honetan erabilteko desegokitasuna elkartu dira. Deshazkundera hitzarekin esan nahi dena esateko, hobe da “gutxiagorekin hobeto” esaldia, zentzu handiagoa dauka. ■



ARGIAren 90. urteurrenean egindako lan-grafiko originala

Jose Luis Zumetak eskuz sinatutakoa



Lehen ~~160~~€

Orain!

99€

- Edizio limitatua
- Testura bereziko paper naturalean egina
- 500x400 mm.



DANI BLANCO

Mikel Zurbano

EHUKO
IRAKASLEA,
EKONOMIALARIA

Zerga amnistia, zerga egituraren zulo beltzaren ikur

JAKINA DA zerga sistema ez dela neutrala, diru sarrerak handitzeaz edo gutxitzeaz harago bistako eragin sozialak baititu. OECD erakundeak egin berri duen *Ekonomiaren aurreikuspenak* txostenaren ondorio nagusiek hala baieztatzen dute: defizitaren aurkako borrokan oso bestelako eragina dute partaide diren herrialde guztietako errenta banaketan helburu hori erdiesteko zergen igoerak erabiltzeak edo transferentzia sozialen mozketak. Zergen igoera progresiboak errenta desberdintasunak murrizten ditu herrialde horietan –Giniren indizea gutxitzen da– eta, aldiz, defizita murrizteko transferentzia sozialak urritzen badira desberdintasunak indartu egiten dira herrialde guztietan. Antzeko ondorio-ira iritsi da Nazioarteko Diru Funtza beste txosten batean. Bi erakunde ofizial horien txostenetako emaitza gisa ikuspegi ofiziale-tik berritzailea den balorazioa aipa daiteke, aurrekontua egonkortzeko neurriek ekitatearen arloan dituen ondorioak kontuan hartzea ezinbestekoa dela alegia.

Estatuaren zerga politikaren ondorioz diru sarrerak gutxitzeko joera ez da aldatu, eta gainera, jaitsieraren erantzukizuna kapitalaren jabeek leporatu behar zaie

PPren gobernuak txosten horien gomendioei muzin eginda beste muturrean kokatu du bere zerga politika agintean daraman urte honetan. Orain arte batik bat gastu mozketak –soziala– hartu du mekanismo nagusi gisa defizitari aurre egiteko. Bestalde, diru-sarrerak eskuratze-ko iazko PFGZaren igoera xumeak eta aurtengo BEZaren handitzeak ezer gutxi ekarri dute statuaren eskutara kontsumoaren eta errenta errealean jaitsierak kontra eraginda. Bestalde, elkarteen gaineko zergaren azken bost urteetako emaitza ikusgarria izan da estatuan, bere sarre-rak %68 jaitsi egin baitira eta statuaren zerga kopuru guztiaren %23tik %8rako jaitsiera izan baitu elkarteen gaineko zer-

gak Maiatzak 1 Fundazioko txosten baten arabera. Beraz, statuaren zerga politikaren ondorioz diru sarrerak gutxitzeko joera ez da aldatu, eta gainera, jaitsieraren erantzukizuna kapitalaren jabeek leporatu behar zaie. Krisialdiko mozkinen jaitsierak ez du galera hori guztia azaltzen, zerga ordainketa saihesteko injenieritza fiskalaren erabilera eta batez ere enpresa handien erabilitako zerga ihesbidea da horren arrazoi nagusia. Adibide gisa, Ibex-en kotizatzen duten 35 enpresetatik 30ek paradisu fiskalak erabiltzen dituzte zergen zama arintzeko. Beste adibide esanguratsua kanpoko enpresa multinazionalak egiten duten erabilera fiskalarena da. Esate baterako, zazpi erraldoi teknologikoek (Apple, Google, Microsoft, Yahoo, Facebook, eBay eta Amazon) estatuan duten negozio bolumena oso zabala izan arren azken hiru urteetan Madrilgo zerga agentziari kotizatutakoa 25 milioi euro baino ez dira izan.

Sarrera publikoak gehitzeko itxura egin nahian eta presio soziala lausotzeko gobernu zentralak iruzur eta ihesbide fiskalaren aurkako borrokaren arloan, besteak beste, zerga amnistiaren neurri liskar-tua ezarri zuen. Zerga amnistia berez da bidegabea, burbuilaren aldiaren aberastu ziren errententzat zerga oparia delako, izan ere, ordainketaren tasa %10era jaisten da zigorra ahaztuta. 2.500 milioi euroko sarrerak berreskuratzea zen helburua eta hori nahikoa omen zen ekimena zilegi izan zedin. Bada, aurreikuspen xume horren erdira ere ez da iritsi zigorgabe-tzeak egindako ekarpena.

Beste hainbatetan OECD eta Nazioar-teko Diru Funtzaren gomendioak irmoki jarraitu izan dituen gobernu kontserbado-reak badu zer zuzendu ekitatearen has-tapena behin betiko lehertu nahi ez badu. Euskal ogasunek ere etorkizuneko erron-kari heldu behar dioten honetan zerga egituraren zulo beltz honi heldu beharko diote, ogasun propioaren balio erantsia proiektu sozial sinesgarria izan dadin. ■





ZER DUTE IKUSTEKO

OTEQIK

IBARRETXEK

ELORRIETAK

IDATZI LIBURUEK?



DANI BLANCO

Iñaki Murua

BERTSOLARIA ♦

Eutsi goiari! Umoretsu beti

ZERGATIK ez diogu umorez Wertigoa sortzen eta gurean wertba egiteko aukera moduan erabiltzen? Sukaldean, ezkaratzean edo wertbarruan izan ezik, euskara erabiltzea wertan behera utzarazi nahi izan zuen hura, bai, beste gauza batzuen artean wertna hezur biak motz-motzak zeuzkan hura? Hark erabilitako formula berberak erabiliz abiatu da hau eta hark bezala, denok batera bere aurka jarri gaitu. Hori behintzat poztekoa da! Poztekoa, zer? Batera jarri izana zerbaiti buruz eta inoren aurrean. Inoren ala norbaiten? Berdin dio... kasu honetan!

Umorea pizteko modukoa da, bere burua zintz hotsak eta mukia dariola jarri arte, korridetan aztortzen omen den zezentzat daukanean ere! Non jarriko zezenaren tokian eta, jendaurreko aurreneko korridan akabatzen dituzten herrialdean; bere herrialdean... Wert-han! Eta publikoa “ole eta ole” ari zaion adardun modura, zer esan? Gure kulturaren, aspaldiko ohiturei jarraiki “oles eta oles” hartuko genukeen. Alde ederra dago, bere hiltzaile izango denari haizea eman edo bera animatuz babestu.

Izena ere, kausalitatea aizue (Joseina jar nezakeen baina ez zait atera...) Joseinazio, Joxixio, kottinazio, Inaxito dei ziezaioketen (euskaldunon graziaz) eta, Loiolakoaren zuraje ideologikoa geneetan txertaturik ekar zezakeen, amaren partetik. Imaginatu gure zezenak bigarren abizezera Irizar baldin balu... zer litzateke, iri-zahar (jostailuak ondo-ondotik moztu dizkiotena) ala zezen koskabriloduna?

Hori bai, gauza batean erdizka arrazoi eman beharrean nago: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari urte bat kendu nahi diolako. Zergatik? Pentsatu pixka bat eta esan, zer eta hezi derrigorrez, derrigor-tuta, *de rigor?* Badira bada limurtu, geureganatu, bategin (zuzentzaile ortografikoak banatuta jartzea eskatzen dit...), konkistatu, gozamen, poltsikoan sartu, aho zabalik utzi... Edo komeni, gomendio, aholkatu, desiragarri, on... etan hala ere, egin asmo duguna argi eta garbi adierazteko, *derrigorrezko hezkuntza*. Harrapa zak! Dena den, kontraesan bat badu, besteak beste, Wert jaunak, bere erreforma goitik behera ezartzeko, aurrez derrigorrezkoa zen urte bat wertederora botako du, atez ate bildu edo erraustu ala herra-hustu.

Bukatzeko, zorionak tokaio! Hire planei aurre egiteko denok aho-batez elkartzera lortu duk eta hori, komunikatzaile ona haizen seinale duk: denok lehengoan eta wertdin ulwertu diagu, hire nahien gaitetik daudela gure hizkuntza eta gure seme alaben heziketa.

Orain, asko eskatzea ez bada, zerbait bota ezak wertako, betiko, eta geurea den umoreari eusten laguntzeko modukoa. Awert, erraza daukak, nahi gabe ere okurrituko zaik hiri beste astakeriaren bat umore awertzalea areagotzeko, ezta? Eskwertuko diagu hire marka ppwertsonala euskara eta euskaldunak suspwertzeko eskaini izana? ■



DANI BLANCO



Itxaro Borda



IDAZLEA

Arraiki 2.0

MUSIKA derrigorrezkoa dut idazteko. Ideia bakar horrekin jaiki nintzen goiz batez: DJ Axularen melopea tektonikoak behar ditut bukatzen ari naizen ipuinaren giltzatzeko. Gaurko egunean, absurdoraino, ohitura hartua dugu kontsumitze-inpulsio bat nabaritu orduko sarera lehiatzeko, han eta hemen ditugun bezero-kontuak erabiliz. Begi kliska soilaz *elkar online* orrialdean nintzen Txitarro dantza-tokiko *master of ceremony* den Axular Arizmendiren lanak nire zestoan.

Ordaintzeko unean egoeraren zozolaz ohartu nintzen. Alabaina etxetik jaitsi eta lau urratsetan daukat Baionako Elkar

denda zabalik eta bertako langileen trebeziak baliatu naiteke gutziziatu bi CDak eskuratzeko. Horrela gainera, nazioarteko posta-gastuak baztertzen ditut, nahikoa zekena edo zuhurra naizelako dirua aipatzen hasiz gero. Fama halakoa dut bederen.

Ekonomiak egiteko eta eros-jaidurari berehala ihardesteko *gure desira* manipulatzeko dute merkatuen manitu erraldoiek. Ez dute besterik eskatzen hain zuzen *gure desiraren* meneko jartzea eta ondorioz... denetan saltoki txikiak zein handiak desgertzen dira banan-banan. ■





Kike Amonarriz

◆ UMOREGILEA ETA
SOZIOLINGUISTA

Umorea eta hizkuntzen irakaskuntza

ALGARA, EDO EZ GARA bloga zabaltzeko aitzakia eman dit Péter Medgyes, Hungariako Hezkuntza Ministerioako estatu idazkari eta Damascon enbaxadore izan den Linguistika Aplikatuko irakaslearen *Laughing Matters: Humour in the language classroom* liburuak.

Sarreran dioenez, umorea, hizkuntzen irakaskuntzarako dugun bitartekorik onenetako bat da, baina oraindik ere ariketa eta testu umoretsu gutxi aurkitzen dugu hizkuntza lantzeko materialetan. Egoera hau ez da oso ulergarria, hizkuntzak ikasterakoan aise sortzen direlako egoera umoretsuak eta ikastordu horiek plaza ezin egokiagoak direlako giro atsegina eta lagunkoia sortzeko. Umorea erabiltzeko hainbat arrazoi aipatzen ditu. Tartean hauek:

- Kulturen arteko zubiak eraikitzen ditu.
- Ikasleen arteko harremanak erraztu eta tentsioak baretzen ditu.
- Pentsamendu sortzailea garatzen du.
- Aurretik ikasitako hizkuntza zatiak finkatzen ditu.
- Gelan giro alaia sortzen du eta motibazioa handitzen du.

Euskara irakasle gisa aritu nintzenez, hizkuntzaren inguruan emandako hitzaldietan eta Hizkuntza Eskolan ikasle gisa izandako esperientziak ere ondorio berberera narاما: umoreak ikasketen prozesua erraztu egiten du.

Eta orduan, zergatik ematen zaio horren garrantzi gutxi

umoreari irakaskuntzan? Galdera hori erantzun nahian, 2004ko Udako Ikastaroetan “Umorea eta Hezkuntza” ikastaroa antolatu genuen. Beste batzuen artean, Felix Etxeberrriak eskola tradizionalaren umore txarrari, eskola berriaren alaitasuna kontrajarri zion, bere abantaila pedagogikoak azalduz. Joxerra Gartziak berriz, “Umorea: Publizitatean bai eta eskolan ez? Hezkuntza persasioaren ikuspegitik” gaia landu zuen eta umorearen baliagarritasuna eta ezinbestekotasuna aipatu zituen.

Honen haritik gogoan dut gure alabetako batek ikastolatik bueltan behin hauxe esan zidala: “Aita, gaur egun handia da. Andereñok barre egin du!”. Izan ere, edozein haurri zein irakasle dituen gustukoen galdetuz gero, hamarretik bederatzitan, gelan irribarra erakusten dutenak aipatuko dizkizu.

Berriki ospatu dugun 2013ko Kilometroaren aurkezpen-jaialdian, bertaratu ziren ikasleek, barrez eta algaraz hartu zituzten irakasleak, esketetan edo arropa-desfilean azaldu zirenean. Baina irakasleen jarrera horrek eta ikasleen barreek sekulako balio pedagogikoa dute. Umoreak gertutasuna eta konplizitatea baitakar, energia positiboa eta ikuspegi zabaltasuna. Are gehiago, nire ustez ezin da pedagogia aurrera-koirik planteatu, lan-tresna nagusien artean umorea eduki gabe. ■



BERTSO BERRIAK

Ane Labaka



Doinua:

Txikitatikan edukia dut.

Zor diegu memoria

Zure aldeko edo aurkako izaten bada zoria bizitza bera bihur liteke zahartutako noria egon zintezke gora igoa edo behera eroria. Zor diet letra lodia, miresmena, memoria... nahiz gizonena izan mundua, ospea eta gloria idatzi nahi dut emakumeen ezkutuko historia.

Emakumeen zeregina zen lurzorua goldatzea idiak zuzen akuilatzea, artosailak jorratzea, hamabi aho elikatzea, maindireak lisatzea, atariko belazea sarri ongarriztatzea... Betebeharra zen kanpokoa zaindu eta mimatzea baina ahaztu egin zitzaizen barrura begiratzea.

Oilagor asko ekarri ditu aurtengo neguko ehizak, gaztainak ere irribarretsu saltzen ditu Maria Luisak, errege sagar eta intxaurrak udazkeneko emaitzak, pikondo hosto likitsak, ta udaberriko zizak gizadiaren legetzat ditu launa urtaro bakoitzak Ordiziako azokak eta urteak eta bizitzak. ■

Lazkao Txiki bertso paper lehiaketako irabazlea. Sorta osoa, argia.com-en.

Iratxe Esnaola

◆ IDAZLEA



DANI BLANCO

Idazle ezkutatua

DURANGOKO AZOKA iragan berri, luma eskuan eta irribarrea ahoan sinadurak ezker-eskuin banatzen ikusi ahal izan ditugu euskal idazleak argialetxeen standetan, bai eta entzun ere liburu berriei barruko arropak nola erantzten zizkieten elkarrizketetan. Gutxi barru, urtarrean beteko dira hiru urte J. D. Salinger zendu zela. Kontrarioak erakarri egiten omen dira eta hala dirudi, azokako mugimenduak oroimenera ekarri baitit hedabide zein promozioetatik at bizi izan zen idazle estatubatuarra. J. D. Salinger bere bizitza pribatuaren zaindari zorrotza izan zen. Argazkirik apenas atera zioten, bere ahotsa ez zen grabatua izan nahiz kazetariak gogotik saiatu, eta noski, liburuen inguruko azalpenik ez zuen eman ohi. Ezaguna da, batez ere, *The Catcher in the Rye* (1951) eleberraren ospeagatik, zeinak bere bakartze boluntarioa areagotu zuen. Enrique Vila-Matas-ek *Bartleby y compañía* (Anagrama, 2000) lanean “ezaren idazleen” artean kokatu zuen, hau da, idazteari betiko uko egindakoen artean, hain justu, Salingerrek ez zuelako deus publikatu 1963. urtetik hil zen arte. Nik nahiago dut pentsatu ez zela ukazioan jauzi. Hil ostean etxea miatu omen zioten eskuizkribu bila. Nahi nuke liburu berri bat edo mordoxka bat agertuko balira laster eta jakingo balitz uko bakarra publikotasunari egindakoa izan zela. “Atsegin dut idaztea. Maite dut idaztea. Baina nire buruarentzat eta nire gogara”. Horiek eskaini elkarrizketa bakanetako batean esan zituenak. Hitz horietara lotzen dut esperantza, beste ideia bat lagun: narrazioak berez mintzo dira, idazlearen beharrik gabe.

Egun idazlea ezkutatzek ez dio mesederik egiten ez liburuen promozioari ez gonbito mediatikoaren menuari, baina ezta ere bere lana

jendaurrean aurkeztu nahi duen sortzaileari. Azokak eta Ahotseneak azken honetarako eskaintzen duten espazioa onuragarri da, hortaz. Alde erantzira, ordea, euskal letren mundutxoan zail da ezkutaketara jostatzea, idazle gazteontzat, bederen. Gure izenak erraz hedatzen dira hedabideetan eta lasterka abiatu den zakurraren hedearen sigi-sagaz barreiatzen. Liburu bat kaleratu eta berehala elkarrizketatzen zaituzte bi egunkarik, hiru-lau aldizkarik eta beste hainbeste irratik, testua irakurria izan ala ez izan. Haatik, Salinger izatera heldu gabe, ezkutaketa zaleak baditugu gurean. Elkarrizketatzeko deitzen dituztenean, dela gaixorik dela etxetik urruti daudelako, eta horregatik erantzuteko ezindurik, bularrean triunfo sentipen gozo asaldagarria ernatzen zaie, partida batean tantoa

bereganatu balute bezala, nahiz oso garbi ez izan jokoa noren aurka den (prentsaren, argialetxearen, beren buruen aurka?). Ezizenez plazaratzea da aukera

bat gordean irauteko, beti ere hil artean benetako nortasuna deklaratzeko ez bada, eta agerpen publikoak urliaren edo sendiaren esku uzten badira. Durangoko aztoramenaren erdian gutizia horixe izan nuen. Borondatez ezkutatzeko den euskal idazle bat desiratu nuen, izen anbiguo bat beste ezaugarriarik izango ez zuena, ez mutil ez neska, ez iparraldeko ez hegoaldeko, ez zahar ez gazte. Bere afixarik ezingo litzateke itsatsi hormetan, ezta berari buruzko biografiarik zanpa-zanpa irakurri. Ezezaguna izaki, askeago epai-

tuko genituzke bere izkribuetako tolesak eta gailurrak, maiteko genuke bere prosa edo batere ez genuke maiteko. Eta standek aurkituko lukete modua idazlea bertan egon gabe kondairaz baliatu eta jendea erakartzeko. Fokuak piztean orrialdeak leudeke argituak, eta berarekin, literaturaren misterioa. ■



«Itzultzen hasi berriaren neurrikoa izan nuen Xukriren *Ogi hutsa*»

Itzulpengintzaren Euskadi Literatura saria jaso du Alaa As Aswaniren *Jakobian eraikina* (Igela, 2011) nobelak, Xabier Olarrak eta Arantzazu Royok maisu-maistraki euskaraturik. Izen eta aipu handikoa da lehena, bidean urrats egiten ari dena, berriz, bigarrena. Mohamed Xukriren *Ogi hutsa* (Igela, 2010) itzuli zuelarik irten zen plazara, eta isilean igaroko zen, sariak zipriztindu izan ez balu.

| MIEL A. ELUSTONDO |

Argazkiak: Zaldi Ero

Itzalean, beste behin, itzultzailea. Zu, oraingoan.

Sukaldean, esaten dut nik. Ondoena hortxe, lagunartean. Jendaurrean agertu beharra gehiegi zait. Gustura nago neure txokoan. Saria eta gainerakoa, plaza, handiegia zait. *Petit comité*-n hobeto, gauza guztietan.

Liburu plazaratzeak horixe du.

Badakit, bai. Nik kalkulatu ez, ordea, ahal nuena egiten jardun dut itzultzen, besterik gabe, ez nekien zer etor zitekeen. Mohamed Xukri [*Ogi hutsa*] itzuli nuen lehenengo, arabieratik, bai, baina japonieratik itzultzen ari direnak ere bada! Babespean egin dut nire bidea, itzalean nahi izan dut, eta, hala ere, Xukri itzuli eta plazara irten beharra egokitu zitzaizkidan, ezin itzultzailearen sukaldean geratu. Ez nintzen jabetzen, edo ez nuen ikusi nahi, zer ondorio etor litekeen... Niretzat, Xukri ez da, besterik gabe, itzulpen esperientzia izan, bizi-esperientzia baizik.

Plazara irten zinen Xukriekin, zenbait aurkezpenetan ikusi zintugun.

Ez dakit, bada. Plazara irten behar da, ezin gara ezkatzen ibili, baina tamaina behar dut. Eus-



“Niretzat, Xukri ez da, besterik gabe, itzulpen esperientzia izan, bizi-esperientzia baizik”.

kadi sariarekin ere, izan nituen gorabeherak. Egindako lanaren errekonozimendua ere bada sari hori, baina espantuka jaso nuen berria! “Ai, ama!”. Xabier Olarrarena eta biona da saria, eta konpartitua izateak ere lagundu zidan.

Duela bi urte, *Erlea* aldizkariaren 3. alearen aurkezpenean ere erakutsi zenuen zeure burua, Bilbon.

Harrituta nengoen, neure buruarekin: uste baino lasaiago jardun nuen. Lehenengo aurkezpena egina nuen Donostian, han izan



nituen lagunak ere, baina Bilboko hura beste testuinguru bat zen. Irakurketa eta elkarrizketa, biak eskatu zizkidan Atxagak, eta banuen kezkatxoa, elkarrizketari dagokionez. Izan ere, arabierak eraman ninduen mundu hori ezagutzera, ez mundu horrekiko interes berezi batek. Hizkuntzak eraman nau bazter guztietara, horrek mugitzen nau. Hizkuntzaren bidez ezagutzen ditut herriak eta kulturak.

Noizdanik?

UBI bukatu nuenetik. Hura bukatu eta unibertsitatera zen bidea, baina ez nekien zer ikasi nahi nuen. Hizkuntzetan ondo moldatzen nintzen, euskara izan, ingelesa izan... Londredera joan nintzen. Ingelesa, Londresen. Parisen, frantsesa. Ikasten eta lanean, beti. Parisetik bueltan hasi nintzen EIZIEN lanean, zenbait orduz. Frantsesarekikoak egin eta beste hizkuntzaren bati heltzea pentsatu nuen, diferentea: "Errusiera? Hotza. Japoniera? Zaila... Arabiera!" Eta hasi nintzen, eskola partikularretan, non sartzen ari nintzen jakin gabe. Hasi nintzen, eta ezin utzi. Gustura. Hizkuntza ikasketa bera oso gustukoa dut.

Noiz iritsi zinen Marokora lehenbiziko, noiz izan zenuen Xukriren berri?

Marokora lehenengo aldiz 1992an, baina Xukriren berri hura hil aurreko urtean. Xauen-en nintzen, eta zer edo zer irakurri nahi eta liburudendara sartu nintzen. Hantxe ikusi nuen liburua: Mohamed Xukri, *Le pan*

Zergatik itzuli?

"Hizkuntzak mugitzen nau, testuak, hitzak; hitzen soinuak, estetikak, egiturak, esanahiak... eder nahiz itsusi, hitzen arteko loturak, joskerak... Itzultzen ari garela, ordea, ez dugu hitza bere horretan itzultzen, hitzen bitartez adierazten den mundu bat deskubritzen ari gara, eta geure hizkuntzan adierazten; batzuetan gozatzen, beste batzuetan izerdi patsetan, eta beste batzuetan ez bata ez bestea. Hori ere bada".

nu. Frantseseko edizioaren bidez ezagutu nuen. Zer zen hura, gero! Ikaragarri gustatu zitzaidan nola kontaktatzen zuen historia... Xabier Olarrarekin harremana berreskuratua nuen EIZIEN (irakasle izana bainuen institutu-tuan Hernanin). Igela zale ere banintzen, aurkezpenak segitzen nituen, haien itzulpen-lanak eta beste. Behin, horrela, Xukri euskaraz jarri behar genuela hasi ginen. Ez oso seriotan, ez bainintzen gauza sentitzen orduan.

Baina itzuli zenuen, eta saria jaso duen *Jakobian eraikina* ere bai, Olarrarekin elkarlanean.

Xabier Olarrak berak eman zidan liburuaren berri! Ez nuen egilearen berrikerik ere. Filma ikusia nuen, baina ez ninduen harrapatu... Olarrak *Jakobian eraikina* aipatu zidanean, orduantxe irakurri nuen, baina ez beste edozein liburu bezala, baizik eta haren itzulpena gogoan. Nire lehenengo erreakzioa... zaila iruditu zitzaidan, ez nuen neure tamainakoa ikusi. Gainerakoan, entretenigarria, bizia, interesagarria iruditu zitzaidan, gauza asko kontaktatzen ditu. Nolanahi ere, itzulpenak, niri, irakurtzen laguntzen dit, hau da, axaleko irakurketatik irakurketa askoz sakonagora jotzen. Eta, jakina, askoz gehiago jasotzen.

Lekutan da arabiar mundura egin zenuen lehen bidaldia.

Lehenengo uda ikastaroa Marokon egin nuen, hilabete. Hurrena, Tunisian. Donostia-ira itzuli, eta eskola partikularrekin jarraitu... Oso prozesu luzea da ezer ikasterako! Arabiera ez da ingelesa ez frantsesa, eta asko kostatzen da ikastea. Hala, hilabete baino gehiago irauten zuen ikastaro bila hasi nintzen, galdezka. Bazuen Espainiako Atzerri Ministerioak ikastaroen zerrenda bat, eta hantxe ikusi nuen lau hilabeteko ikastaro baten deia, Damaskon egitekoa.

Siriara heldu nintzen lehenengo aldian, 1997an, ez nuen batere hango berrikerik. Internet bera, hasi berria zen gurean. Hara iritsi eta lehenengo lana, Cervantes Institutura joatea, erreferentzia bila. Han topatu nuen neska bat, espainiarra, telefonoz arabieraz hizketan. Baina nola egiten zuen, gero! "Posible da, nonbait, arabieraz hitz egitea!" Hizkuntza guztiz pasibotzat hartua nuen nik arabiera. Eta ikastaroak etorri ziren, han eta hemen, bata bestearen atzetik, konstantzia handirik gabe, baina segi. Sirian azkena, 2006an.

Lehenengo hartan hemendik Siriara joateak lanak zituen.

Bada bidaia-agentzia bat, Años Luz, harako bidea egiten zuena. Bataren bidez, bestearen bidez, hotel erreserba eginda joan nintzen.

Enbaxadara ere joan beharra nuen, izena emateaz gain, erreferentzia eta agiri bila. Unibertsitateko ikastaroan matrikula egiteko, adibidez, enbaxadaren agiria behar genuen. Alde guztietan, dena zen arabieraz, ez frantses ez beste. Beharko ikasi arabieraz! Atzerritarrak gutxi ziren, eta biltzera egiten zuten. Harrera ona egin zioten iritsi berri honi, han mugitzen hasteko, haiek ere neure egoera beretik pasatuak izaki. Frantsesa eta ingelesa jakiteak, bestalde, jende askorekin erlazionatzeko modua ematen zidan.



Itzulpena baino lehen, bizitza historia dugu.

Bai. Dena dela, nik ez nuen sinesten Xukri itzultzera helduko nintzenik. Joan ziren urte batzuk bitartean. Xabier Olarrak pazientzia handia izan zuen. Eta Juan Garziak ere ikaragarri lagundu zidan testua lantzeko garaian. Nire lehenengo saioa zen! Lehenago, ipuin bat ere itzulua nuen, Egiptoko Yusuf Idris-en ipuin bat. Juani [Garzia] eman nion, eta hark, ontzat eman zuen, oso ondo. Olarrari gero, eta hark ere ondo. Bultzada handia izan zen hura niretzat, arabiera-euskara itzulpenari ekiteko.

Argitaratu da ipuina?

Ez, tiraderan dago, baina ariketa gisa itzuli nuen. Idris eta Mahfouz, bateratsu omen

“Itzulpenak, niri, irakurtzen laguntzen dit, axaleko irakurketatik sakonagora jotzen”.

zebiltzan Nobel saria jasotzeko garaian. Baina Idrisen lanik ez itzulita. Nonbait, horrek ez zion lagundu. Ipuingile ezaguna da, bestela, Idris.

Jakobian eraikina, Egipto, Kairo.

2000-2001 ikasturtean heldu nintzen hara. Ikastea nuen helburu. Horrek mugitu nau beti, batera eta bestera. Ikastaroak non, haraxe ni: Rabat, Tunisia, Siria... Batean hilabete, bestean hilabete, lau hilabete hurrena... Luzeago bat. Non? Kairora, dialektoagatik joan nintzen. Arabiera estandarra ikasten ari nintzen, albistegietan, prentsan, liburuetan erabiltzen dena, baina estandarra ez da hitz egitekoa. Behin hara joanda, hizkuntza barneratzen hasita, kafea estandarrez eskatzea oso artifiziala gertatzen da. Lekuan lekuko dialektoa erabiltzen hasten gara. Kairoko dialektoa, esaterako, oso zabala da. Marokoarrak Kairokoari ulertzen dio, baina Kairokoak Marokokoari ez, antza.

Zein da arrazoia?

Liburu produkzioa, zinema eta telebista, gehienbat Egipton eta Libanon egin delako, eta hori delako zabalduena. Telesailak eta beste. Oso telesail zale dira, eta Marokon esaterako, horrela jaso dute Egiptoko dialektoa ere.

Azterri hizkuntza bat, zeinahi dela ere, ongi hitz egitea lan handia da; hizkuntza estandarra, esan nahi dut. Zer esanik ez dialektoa jakitea.

Nik halako saltsa-maltsa bat egiten dut. Ikastaro batetik bestera denbora joan zait, eta zaila da hizkuntzari eustea. Hemen, ibili nin-

‘Hutsegiteen garaia’

“XUKRIREN LIBURU HORRETAN ari naiz orain, datorren urtean kaleratzekotan, baina, tamalez, erritmorik gabe, oraintxe. Liburuaren erdia zirriborratua dut, oporraldietan astindu on bat emanda. Harrezkero, ordea, ezin, bata dela eta bestea dela. *Ogi butsan*, horixe izan nuen: tartea, denbora, Xukriren munduan sartzeko eta murgiltzeko, eta neurea lasai botatzeko. Testuarekiko harremana, ‘deitzen ari zitzaidan’ sentsazio zoragarria, jarioa eta ataskua, pazientzia eta pazientziarik eza, sormena eta artisautea, deskodetu eta kodetu, desmuntatu eta muntatu... pieza lekuz aldatu; kendu eta erantsi, errenuntziatu eta konpentsatu... Zer den ‘han egotea’, zer esan nahi duen ‘ahal bezain hurbil, behar bezain urrun’ esaldiak... Horiek entzuteetik, bizitzera. Horixe dio Biltoki Elkartearen 10. Urteurrena dela-eta Fernando Rey itzain eta akuiludun dela kaleratu berri den liburuaren tituluak, ezta? *Hitzza bide, bizia xede*”.



tzen eskola batzuk hartzeko asmotan, hizkuntzari euste aldera, baina zaila egiten zait ahaleginean segitzea. Itzultzea da eusteko beste bide bat.

Zein ohi ditugu arabieratik euskarara itzultzeko zailtasunik handienak?

Urruneko hizkuntza eta kultura izatea, oro har. Bidea urratzea bera, ez baitugu arabiar literatura askorik euskaraz. Hainbat dira ezberdintasunak. Teknologitresnak ere ez ditut beste hizkuntzetan dauzkadan

“Hizkuntzak eraman nau bazter guztietara, horrek mugitzen nau”.

Al Aswaniren hitzak

“ZER SARI DAKAR IDAZTEAK? Zergatik pasatzen ditu idazleak urteak bulego batean idazten, besteak ederki bizitzen ari diren bitartean? Zer dela eta berebiziko ahalegin hori? Zein da saria? Dirua? Ez zait iruditzen. Izan ere, ahalegin hori bera beste edozein ofiziotan eginez gero, diru gehiago ekarriko zion.

Ospea al da saria? Ospeak, berez, ez du balio ikaragarriarik. Jendeak ezagutzen zaitu, baina zuk ez dituzu haiek ezagutzen. Gainera, bada jende ospetsu franko, gizadiari benetako ekarpenik egin ez diona. Orduan, zein da saria?

Nire ustez, saria da jendeak zure ideiak jasotzen dituela, zuk idatzitakoa irakurri eta ulertzen duela –hainbat hizkuntzatan–, eta zuk idatzi duzun horrek, beharbada, jendearen pentsaera eta mundu ikuskera alda ditzakeela.

Beraz, nire lanen itzulpenak sari handia dira; ohore bat niretzat, eta edozein idazlerentzat. 33 hizkuntzatarata itzuli dira nire obrak, eta poza hartu nuen euskarara 34.a dela jakitean. Mila esker nire nobela euskaraz jarri duzuen itzultzaileoi.

Estimatzen dut euskal irakurleak ere izatea, eta nire lanak gustuko izatea espero dut”.

(*Jakobian eraikina*-ren egileak Euskadi Literatura sariaren banaketara Xabier Olarrari eta Arantzazu Royori igorritako mezua)

adina. Irakurtzeko prozesua, irakurritakoa ulertzekoa, interpretatzekoa eta barneratzekoa, luzeagoa dut arabieraz, euskaraz ezer ematen hasi aurretik denbora gehiago behar dut. Horregatik, edo horregatik ere, behar izaten ditut ondoan beste itzulpenak. Beste itzultzaileek zer interpretatu duten ikusteko. Sorpresa ederrik hartu izan dut tar-teka. Ez dakit, bada, japonieraz, txineraz, halako zerbait izango da, ezta? Gurearekin zer ikusirik ez du, ez hizkuntzak, ez kulturak.

***Ogi hutsa* izan zen lehenen, *Jakobian*... izan duzue orain Xabier Olarrak eta biok, eta *Hutsegiteen garaia* duzue orain eskuartean, Xukrirena hau ere. Itzultzen hasi eta zein dituzu bi egileen arteko ezberdintasunak?**

Estilo ezberdinak dituzte, askoz soilagoa da Xukri, esaterako, baina, batez ere, itzultzeko prozesua bera izan da desberdina. “Neure tamainakoa”, hasi berriaren neurrikoa izan nuen Xukri. *Ogi hutsa* egokia iruditu zitzaidan hasteko, eta gainera, laguntza handia izan nuen zuzenketa prozesuan. Juan Garziaren eta Xabier Olarraren laguntza izan nuen. Xukriren estiloa soilagoa dela esan dut, esaldi laburrak ditu eta errazago da itzultzen, baina, itxurazko erraztasun horrek ere badu alde gordea: erritmoa zaindu behar! *Ogi hutsa* liburuan nirea izan zen lehen zirriborroa. *Jakobian*-en, berriz, Olarrarena. Halako eskarmentua duen itzultzaile batena izanik, bada, ikasi ere, gutxi ez. Adibidez, esaldi luzeak, deskripzio eta zerrendatze amaigabeak, imanen diskurtso hanpatuak, Korana eta hadizak [Mahomaren esan eta eginak], formula erlijiosoak... horiek ez nituen “neure tamainakoa”. Ni erosoago eta konfiantza handiagoarekin ibili nintzen pertsonaien ahotsetan. Xabierren [Olarra] ahotsa hurbil sentitzen dut, eta horrek ere hainbat laguntzen du itzultzeko prozesu konpartituan. Arabierazko hitz eta esamoldeak gure arteko transliterazioa erabiliz eztabaidatzea ere, ederra. Azken finean, arabiera-euskara hizkuntz bikotea konpartitu dugu. Ederra... Zuzenketa eta fintze prozesuan ere, zer den distantzia hartzea eta ikustea zerekin ez dugun asmatu, esan nahi genuena transmititu dugun edo ez, irakurtzerakoan zerbaitek traba egiten duen, logikarik gabeko esaldiren bat agertu dela eta konturatzea ez dugula ulertu, edo, alderantziz, irakurri eta “ederki asko geratu da hau” esatea. Horretarako, ez da ozen irakurtzea bezalakorik. ■



Larrun¹⁷¹

www.argia.com/larrun



Helduen euskalduntze alfabetatzea Garai berrietara egokitzeko premia

Iritzia

Joseba Garai Iparraldeko AEK-ko arduraduna

Mahai-ingurua

Pedro Lonbide Santurtziko udal euskaltegiko zuzendaria
Joxerra Olano IKAKo Barañaingo Sahats euskaltegiko irakaslea
Idoia Goñi Ilazki euskaltegiko irakaslea
Mertxe Mujika AEK-ko koordinatzaile nagusia



Datorren
astean



Helduen literatura

Egarrri egunak portualdean.
Koldo Izagirre
Susa, 2012.

Ahantzi ezinezko egarri urteak

1977KO URTEA, memorian gorde beharreko data. Batzuek jada grabatua izango dute eta beste batzuek, ordea, data gogoangarrien egutegiari gaineratu beharko diote.

80ko hamarkadan jaio ginenon gurasoen gazte-heldu garai hark, baita ere, hainbat haur jaiogabeen guraso izango zirenen bizitza amaiera ekarri zuen. Herriak gogoan du 1978ko Sanferminetan Iruñean izandako karga poliziala, Germán Rodríguez erail zutenekoa, urte haietan egosten zen panorama politiko desegonkor baten isla dena.

Post diktadura politiko gertu baten ajea. Eta gertu diot, urteak pasatu diren arren, oraindik ere ajeak sortutako buruko minaren taupadak sentitzen direlako. Gogora ekartzeak, Herriaren egarria iradokitzen du oraindik. *Egarrri egunak portualdean* ez da 1977ko gertakizunen kronika bat, baizik eta orduko errealtate baten ispilua osatu nahi luketen zatien erakitako *collage* moduko bat.


Diktadura politikoak bermatu zituen askotariko errepresioetatik jaio ziren 1977ko udako egarri egunak. Gazteen artean zabaldu zeneko sentsazio horretan egituratzen da Koldo Izagirrek deskribatzen duen portualde hartako sentimendu indibidual eta ideal kolektibo asegabeak. “Bizitza hau ez da edangarria” (9.orr), “jainkoa hila zen, Nietzsche ere bai” (10.orr), “errealitatea ez da jasangarria” (131.orr).

Hamar atal laburretan antolatutako diren orrialde gutxitan, gai mami-tsuen inguruko itzulua egiten du; alienazio kapitalista, indarkeria, borroka moldeak, Euskal Herria, sexismoa, askatasuna, erlijioa. Funtsean, gizarte modernoekin sortu ziren edo, hobeki esanda, gizarte moderno osatzen duten gai gatazkatsu batzuen berrikuste moduko bat aurkitzen dugu Euskal Herriari buruzko kontakizunean. Erakargarria bezain bortitza suertatu zait eleberriaren azken kapitulua, ehorzketa bat kontatzen dueneko eta, nola, gorpuaren deskripzioari helduz, askatasun indibidual zein kolektiboaren aldeko printzipio unibertsalen aldarrria egiten duen; “gure belaunaldiaren aurreneko biktima, askatasun artistikoaren sinboloa, bizitza molde berri posibleen esploratzailea... gorputzaren jabetza kolektiboa dekretatu zen han” (135.orr).

Eleberri arina izatetik urrun dago Izagirreraren azkena. Irakurketa zailtzen duten sinboloz jositako hizkeran idatzia da. Ideien deskripzioa egitetik abiatzen da, ispilua zati guztiak eskaintzen dizkigu, irakurleok ideia andana guzti horrekin izan zenaren mundu erreale baten koadroa osatu dezagun.

Esfortzua merezi duen eleberria. ■

Saioa Ruiz Gonzalez



Piztiarioak
J.M. Olaizola
'Txiliku'
Elkar, 2012.

Piztiaren xarma

LIBURU BEREZIA plazaratu berri du J.M. Olaizola *Txilikuk*; sailkagaitza behintzat, ohiko literatur generoren batera lerrotzeko lanak ematen dituen horietakoa. Erdi Aroan ospe handia lortu zuen moldean emana da, haatik. Bere betiko bi zaletasun dakartzkigu nahasian, literatura eta zientzia, helburua edo asmo nagusia literarioa baldin badu ere. Egilearen hitzak hartuta, “liburu honek, izatekotan, zineman aipatzen den dokumental faltsuaren antza izango luke, agian”.

Piztiarioek animaliak dituzte gai nagusi. Haien izaera nolakoa den eta zer ohitura dituzten argitzen saiatzen dira. Batzuetan benetako animaliez aritzen da piztiarioa, baina ez da harritzekoa benetakotasuna irudimenarekin nahastea. Beste batzuetan asmatutako animaliak deskribatuko ditu mota honetako lanak. Sekula ez da deskripzio hutsa izaten, harekin baitatortu beti sineskeriak, adierazpen moralak eta etsenpluak. Irakatsi nahia agerian izan ohi du.

Liburu honetan 54 piztia daude, bi alfabeto osori lotuak. Lehenengo alfabetoko 27 piztiak irudimenak sortutako animaliak dira, antzinako piztiarioetatik eta fantasiatzko liburuetatik ekarritakoak. Bigarren alfabetoko beste 37ak benetako animaliak dira, naturaren arauetara eta aboluzioaren bidera lerrotuak. Arraroak dira, nolanahi.

Piztiarioetan ohikoa den bezala, ilustratuta dator Txilikuren liburua. Marrazkiak Jose Belmonte Rocandiornek dira. ■





ON.
ON
Autoekoizpena, 2012.

Emakumeen ahots tematia

ITSASO GUTIERREZ Retolaza 90eko hamarkadan ezagutu nuen, Donostiako beste bi lagun gaztetxo-rekin batera Jauko Barik, xamur bezain ausart eta sailkaezina den taldeko partaide zenean. Neska-taldeak, gerora, rock izaera hartu zuen batez ere; eta maketa bat eta bi disko kaleratzeaz gain, Europatik barrena biratxoa egin zuen. Handik zenbait urtera Keike taldean aurkitu nuen Itsasoren arrastoa. Ondarroako taldeak metala eta rocka nahasten zuen eta hainbat disko ere kaleratu zituzten; Itsaso gitarra jotzaileetako bat zen.

Handik gutxira, Goienak antolatu izan duen Danbaka musika lehiaketako laugarren edizioan, ezezaguna zitzaidan Xarma taldeak sorpresa galanta eman zigun, hardcore melodikoa, rock gogorra, amorrua, egundoko sentimendua eta agertokia betetzen zuen talde bizia aurkitu genuelako. Taldeak bi gitarra jotzaile eta bi abeslari zituen, neska eta mutila. Neska nor zela uste duzue? Erraz irabazi zuten lehiaketako saria, diskoa plazaratu zuten, baina denbora laburrean, partaideen arteko desadostasunen ondorioz, taldea desegin zen.

Orain, urte eskaseko epean, daukan buru gogorragatik eta den tematiagatik, 'Motörhead' deitu beharko diogu laster. Bueltan itzuli zaigu Itsaso Gutierrez Retolaza, ON talde berriarekin. Dennis Alberdi (bateria) eta Ibai Suarez (baxua) alboan dituela, Xanperen Koba estudioan grabatutako diskoa jarri digu eskura. Ahotsa eta gitarra ditugu bereak.

Bizitzak ematen dituen ostikoen aurrean erne egon, borrokatu eta onari erreparatzea erabaki du Itsasok; emakumeek sufrizten dituzten bidegabeke-riak azalarazi eta salatzeke baliatu nahi izan du rocka. Baita lortu ere.

ON malenkonioa da, bizipen garratzen kontakizuna, baina gogor borrokatuta argitasuna eta alde positiboa ere baduela adierazten duena. Musikalki ere melodikoa da, baina aldi berean indartsua. Hala, euskaraz abestutako hamaika kantuetan bulimiari, emakumeen amets zapuztuei, tratu txarrei, bikote-harremanei, feminismoari, Saturrarango espetxeari... doinua jarri diete barruraino sartzen diren kantuetan. Horien artean, punk-popetik stoner indartsuenerako bilakaera duen *Haragitan* singlea izan daiteke; Donostiako Izanpirata lehiaketa irabazi zuen kantak, post-hardcore eta rock biziena batzen dituen *Neu nabigatzen* indartsuak jarlekutik botako zaitu supituan, *Fer Apoa* lagun dutela; Ikasle Abertzaleak-en kongresurako prestatutako *On* abestian Fermin Muguruza eta Delirium Tremens taldeko Andoni Basterretxea abiada bizian jarri dituzte, zapatilla rockeroak jantzi-ta; hard-rockaren eta stonerraren mugan kokatu dute *Etsitzen zaitu*; eta pop-rockaren xamurtasuna aurkitu dute *Negua* eta *Oraina* abestietan, besteak beste. ■

Iker Barandiaran



lagunekin euskaraz

interneten ere bai

gure artean euskaraz

mobiletik euskaraz

Noranahi zoazela. Nonahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunen artean, zure giroan, **gozatu euskaraz.**

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



Zortzi titiriteroeren proposamenak haurrekin balioez mintzatzeko

ARRETA HANDIZ osatutako liburua plazaratu du Bizkaiko Urtxintxa eskolak: *Titiriteroeren ipuinak*. Arretaz ez ezik, gogoz, ilusioz, eta ekarpena egiteko borondatez, Ane Olabarriren koordinazioari esker ondua. Zeintzuk dira izenburuak aipatzen dituen titiritero horiek? Idazketan, kantuan, bertsotan nahiz zinema-gintzan trebe direlako, euskal kulturari aski ezagunak diren zortzi lagun: Miren Amuriza, Jasone Osoro, Mireia Delgado, Josu Martinez, Juankar Lopez Mugartza, Uxue Alberdi, Gotzon Barandiaran eta Pako Aristi. Zortzi ipuin-sortzaile beraz, Nagore Txintxurreta ilustratzailearen margo koloretsuak bidai-dituztela.

Ez da aro jakin bati zuzendutako idatzi multzoa, ez da ipuinaren itxuran datorren lezio sorta, ez eta alderdi ludiko hutsean konformatu nahi lukeen liburua ere. Izatez, denen batura du lanak, sortze bere-tik. Dibertitzeko, haurren eta helduen arteko harremana indartzeko eta halaber balioak sendotzeko erabili ahal izango litzatekeen tresna

jarri nahi zigun Urtxintxa eskolak eskura; parekidetasuna, bizikidetzatza, kulturartekotasuna eta elkarlana goratzen dituen jostailua; gurasoek, hezitzaileek, irakasleek, baita adin guztietako haurrek ere, pozarren hartuko luketen produktua. Gainera, braile eta zeinu hizkuntza kontuan hartuz, gormutuak eta itsuak ere bere baitara ekarriko litzukeena. Hauxe da mega helburu horren emaitza: tapaki gogorreko liburua, barruan CDa eta DVDa ere bada-kartzana, QR ikurren bidez zortzi ipuinok eskuko telefonoan jarraitzeko bidea zabaltzen diguna.

Ipuin bakoitzak, bestalde, transmititu nahi dituen balioak lantzeko proposamena dakar amaieran. Ariketatxoak dira batik bat, gaiari hel-tzeko puntu lagungarriak, gogoeta-rako, hizketarako edo jolaserako aitzakiak.

Uxue Alberdi Estibalizek —esan nahi baita Denboraren titiriteroak—, ezertarako betarrik gabe bizitzeak sortzen dion kezka ekarri du *Pianoa-ren soinua* ipuineri. Ipuineko prota-
gonista, Lur, denboraren bila abia-

tuko da, gurasoei oparitu nahi baitie hain eskas duten hori. Horretarako, denbora soberan izan dezaketenguruko pertsonengana joko du, eta bakoitzari zerbait emango die oparitzen dizkieten minutuen truke. Oro har denok daramagun bizimodu presatuan umei sortzen zaien egoera da ipuin honetan aztergaia. Alberdiren hitzak hartuta, “haurrak nolabait oztopo baitira gizon-ema-kume okupatuen bizitzan”. Gure jendarteko drama handienetako bat iruditzen zaio egileari, eta guztiz zentzugabea, gainera: “bizitzeko denborarik ez dugu, lan egin behar baitugu noizbait bizi ahal izateko. Haurrei pagatu arazten zaien prezioa ikaragarria da”.

Agerikoa da, bestalde, liburu honen bidez adin txikikoen irudimenari egiten zaion gorazarrea. Umeek edozer arazo konpon baitezakete beren asmamenaz. Kasu honetan, baita gurasoen denbora-falta ere. ■

**Garbine Ubeda
Goikoetxea**



Txoriek zigarrokinak erabiltzen dituzte habietan

MEXIKO HIRIKO Unibertsitate Autonomoko lantalde batek aztertu egin ditu txoriek, batez ere txolarreek eta txontek, euren habiak egiteko erabiltzen dituzten materialak.

Txolarreen habien %89an eta txonten habien %86an zigarrokinetako zelulosa aurkitu dute, eta horren zergatien bila aritu dira Montserrat Suarez-Rodriguezek zuzendutako taldeko kideak. Lehen iritzien arabera, habietan jartzen duten zelulosak nikotinarekin harreman estua izan duenez, eta nikotinak hainbat akaro eta parasito uxatzen dituenez, txoria eta

euren kumeak askoz lasaiago bizi daitezke euren habietan; beste batzuek esan dute nikotinarekin harremanetan izan den zelulosa auto-medikazio gisa erabiltzen dutela txoriek.

Baina ikerlariek pestizida ugari ere atzeman dute habietan. Zelulosak eman dezakeen abantaila ezerezean gera daitezke pestiziden eraginez. ■



Escherichia Coli bakterioa hesteetatik at bizi daiteke

E. Coli bakterioa oso ezaguna da ugaztunengan izugarrizko arazoak sortzen dituelako, eta behin baino gehiagotan heriotza ere eragin duelako. Erresuma Batuko ikerketa-talde batek bakterioak landareetan bizirik iraun dezakeela frogatu berri duenez, elikagaien segurtasun patrioiak hankaz gora jar daitezke.

ttiki.com/45396
(Gaztelaniaz)

Eguzki-paneletako zelulen eraginkortasuna hobetzeko bidean

Eguzki-paneletara ailegatzen den argiaren zati bat islatu, eta beraz, galdu egiten da. Nanoteknologiaren bidez, islatzea eragozten duen estaldura belau-naldi berri bat sortze bidean dago. Horren eraginez argi gutxiago islatuko da, eta efizientzia hobetu.

ttiki.com/45397
(Gaztelaniaz)

Lentilletan propaganda ere eraman daiteke



BELGIKAKO CMST ikerketa-zentroko ikerlariek lortu dute lentillek ordenagailuetako pantailak bailiran jokatzeko. Beste hitz batzuetan: lentilla pixelatuak lortu dituzte, eta horietan irudiak jar ditzakete. Momentuz dolarraren ikurra kokatzea lortu dute, lentillak daramatzanari eragozpenik egin gabe. Antza, lentilla hain hurbil dago erretinatik, ezen lentilla daramanak ezin baitu ikusi bertako irudia; bai, ordea, beste edonork.

Teknologia horren lehen aplikazioa kosmetikaren alorrean dagoela ziurta badaiteke ere, medikuntzan ere erabilgarria izan daiteke, batik bat erretinara ailegatu behar duen argi-kantitatea erregulatzea garrantzizkoa denean. Dena den, ikerlarien arabera bost urte igaro beharko dira lehen aplikazio komertzialak gizarteratu arte. ■



Aurrerapenak ahotsaren teknologian

Posible al da zientifikoki frogatzea ahots bat pertsona jakin batena den? Badirudi oraindik oso zaila dela erabateko ziurtasunez frogatzea hori, baina jada daukagun teknologiak baten baino gehiagoren negozio zikinak azaleratzeko balio dezake, Belgikako Ogasun ministroari gertatu bezala.

ttiki.com/45398
(Frantsesez)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak



interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Ardozaleen mizpira

MIZPIRAK, *Mespilus germanica*, sukaldari, gastronomo eta fruituzale ugariren jakin-gosea piztu du mendetan. Aurrekoan ere esana, ahosabaia ahozerutzen didan jaki bakanetakoa dut neuk ere. George Saintsbury (1885-1933) idazle, eta beraz ardozale, ingelesak “ardoak fruituen artean duen lagun ezin hobea da usteldutako mizpira” esan zuen. Usteltzen, hau da, azukrea alkohol bihurtzen jaten delako ote?

Usteldu gabe dagoenean gezamin idorgarria da mizpira. Fruitu guztien gisara, barruan dituen haziak zabaltzen laguntzea da mizpiraren helburua. Haziak heldu gabe dauden artean fruituaren mamia seko mingotsa da. Gero, haziak landare berriak emateko prest daudenean, usteldu egingo da eta mami hori ore fin, hara edo hona haziak barreiatuko dituen animaliairen gutizia bihurtuko da. Usteltzea ez da soilik azukrea hartzitu eta alkohol bihurtzea. Ustelduz ondu egiten da, besteak beste, azidoak (zitrikoa,

tartarikoa, formikoa, malikoa...) eta taninoak urritzen eta pektinak eta saponinak gozaten baitzaizkio. Garatzen duen dasta gozoen ortzadarrean arbendol mikatzen kutsua du kuttunen nire ahozeruak. Haziak duten azido zianhidriko pozoitsuagatik ote? Hazi-hautsa litontriko gisa erabiltzen da, barrunbehetakoa harritzoak botatzeko, kontuz baina... Arbedolak banaka emanez zianhidriko hiltzaileak akabatu zuten bateren bat. Napoleon izeneko bat, edo...

Guk beti ezagutu dugu mizpira elorri zuriani (*Crataegus* sp.) txertatua. Harritzeko moduan, mizpiraren hazitik sortutako txertakaren gainean baino hobe hazten da txertoa elorri zurian. Zein lurretan bizi behar duen, maaltza (*Pyrus pyrastrer*), irasagarrondo (*Cydonia oblonga*) edo otsalizarra (*Sorbus aucuparia*) ere izan dezake txertuoin. Zein mizpira aldaera txertatzen da bada? Nik ezagutzen dudana mizpira barietateen zerrenda osatuena Klakos ezizeneko batek bildu zuen, frantsesez: Američka, Apy-

rena, À petits fruits, Boom en vrutch, Bredase Reus, Délice des Vannes, De Metz, De Turquie, Domaća mušmula, Du Caucase, Dunkelsteiner Wald, Dutch, Eksmoarstersyl, Eristoff, Eschenauer Halbkugel, Holländische, Iranian medlar, Krim, Large Russian, Late Russian Medlar, Macrocarpa, Marron, Monstrous, Monstrueuse d’Evreinoff, National Cathedral, Nèfle Gris, Nèfle Précoce, Nèfle Tardive, Néflier de Correa, Nespola di Castelraniero, Nespola Biancheria, Nespola di Soriano, Nespola Goccia, Nottingham, Overtuin, Plovdivska, Puciu Big, Puciu Mol, Puciu Super Mol, Puch-Weingarten, Reus van Uitbergen, Rossatz, Royal, Sans pépins et à gros fruits, Schönbrunner Riesenmispel, Silberberger Mammut, St. Michael Kirche, Sultan, Szentesi rózsa, Westerveld. 50etik gora, fruitu arbola honen jaioterria den Anatoliako aldaera andana kontuan hartu gabe... ■



Kaixo Jakoba! Nik orain sagasti bat landatzen badut sail batean, sagarra bi urtez behin izango al du? Ondorioz, kalkula al daiteke, bi sail izanez gero, urte batean sagarra sail batean eta hurrengo urtean beste izateko? Beharbada galdera bihurri samarra izago da baina...

Tere Garmendia (Lazkao)

Iepala Tere! Sagarrondo bakoitzak erabakitzen du aleak eman edo ez, bakoitzak! Mota berekoak Zerainen bai eta Ataunen ez ematea gerta daiteke, baita Zerainen bai eta Zerainen ez ere. Iaz ez zen sagar urtea izan, baina toki batzuetan erruz izan zen, aurten sagasti haie-tan ez da sagarrak eta besteak lepo.

Beranduko sagarrekin gertatzen da, batez ere, bi urtez behineko joera hau. Berandu heltzen den sagarrak urte osoan behar du arbolaren izerdia, eta gordekin edo erreserbak egiteko aukerarik gabe negua gai-

nean du. Arbolak ez du hurrengo urtean ale askorik emateko gaitasunik izango.

Sagarrondo bakoitzak urtez urte bere dantzari eusteko koreografiaren ardura hormona xixtrin batek du. Maiatzaren bukaera aldera sagarrondoak gainean zenbat ale dituen zenbatzen du. Ale barruko haziak hazteko hormona bat sortu behar du. Sortu behar duen hormona kopuruaren arabera, zenbat ale dituen badaki. Ale gutxi badu negura lasai eta indarrean iritsiko da: hurrengo urtean sagarra ematea erabakiko du. Ale franko baldin badu, halamoduz iritsiko da negura eta hurrengo urtea indarrak berritzeko hartu eta alerik ez ematea erabakiko du. Beraz maiatzean erabakitzen du hurrengo urtean zer egingo duen, eta non edo han duen “garunean” jaso. Horra sagarrondoan, landareen erabakiak hartu eta gorde eta eusteko gaitasuna. Tokitan nago ni hurrengo urtean zer egin behar dudana maiatzero erabakitzeke, eta okerre dena, erabakitako bat betetzeke!

Badago urtero sagarra izateko aukera. Irakurritakoa irakurritan, zein izan daiteke? Etxeko botila sagardo sari asmatzen duenarentzat. ■

Erromatarrak urdaiazpiko iberikoaren konkistan

IBERIAR PENINTSULA, K.a. III. MENDEAREN AMAIERA. Bigarren Gerra Puniko betean, kartagoarren hornitze lerroak eten nahian, erromatarrak penintsulara iritsi ziren. Hamabi urtean lurraldeko kartagoar guztiak egotzi zituzten, baina konkistarekin jarraitzea erabaki zuten. Bi mende beharko zituzten penintsulako herri guztiak mendean hartzeko. Baina ahaleginak merezi zuen, lurralde hark erromatarrentzat oso preziatuak ziren ondasunak ematen baitzituen: *garuma*, olioak, soldaduak, eskulangi-leak... eta urdaiazpikoa.

Ordurako erromatarrek urdaiazpikoa, *prosciutto*a, kontsumitzen zuten. Katon zentsoreak (K.a. 234-146) idatzi zuen zerri urdaiazpikoak kontserbatzeari buruzko lehen dokumentua: egun batzuetan gazitzen uzten zen, ondoren oliba oliotan busti eta lehertzeko zintzilikatzen zuten. Hari esker dakigu gaur egun oraindik ezaguna den Parmako *prosciutto*ak orduan ere ospe handia zuela, eta ejertzitoak elikatzeko nahiz Erromako oturuntzetarako erabiltzen zela. Trebbiako guduan Anibalak erromatarrak mendean hartu zituen (K.a. 217), kartagoarra Parman sartu zen eta harrapakin gisa upeletan gordetako urdaiazpikoak eraman zituen. Hurrengo mendean, Varronek (K.a. 116-27) eta Estrabonek (K.a. 63-K.o. 24) ere Parmako urdaiazpiko bikaina izan zuten hizpide.



TERRA ANTIQVAE

Valdelacasa del Tajoko (Cáceres) aketza, K.a. III. mendekoa. Erromatarrak iritsi aurretik Iberiar penintsulan zerriak gurtzen zituzten seinale dira horrelako eskulturak. Eta ordurako, zerriak gurtzeaz gain, haien hankak ontzen ere bazekiten.

Erromatarrak iritsi baino lehen, Iberiar penintsulako hainbat herri trebeak ziren txerrikiak lantzen; Tarracon, antzinako Tarragonan, 2.000 urte baino gehiago zituen urdaiazpiko fosila aurkitu zuten. Eta erromatarrek urdaiazpiko iberikoa das-tatu zutenean, Parmakoa baino hobea, dasta biziagokoa zela konturatu ziren. Ordura arte, etxeko produktuez gain, Galiako urdaiazpikoa ere oso gustuko zuten konkistatzaileek. Baina inportazioetan Pirinioez hegoaldekoa gailendu zen berehala. Estrabonek berak,

Geographica lanean, kantabriarren eta Pirinio inguruko biztanleen urdaiazpiko gozoak aipatu zituen, baita iberiar txerrikiaren kalitatearen sekretu nagusietakoa jaso ere: txerri haiek ezkurrez elikatzen ziren.

Elikadura bereziaz gain, urdaiazpiko hark denbora gehiago behar zuen ontzeko erromatar *prosciutto*ak baino. Gero, produktua Hispaniatik metropoliraino eraman behar zen, eta horrek are gehiago garestitzen zuen jakia. Erromatar Inperioan urdaiazpiko iberikoa luxuzko produktu bihurtu zen. Dioklezianoren Gehieneko Prezioen Ediktuaren arabera (K.o. 301. urtea), Hispaniako urdaiazpiko libra bat (326 gramo) higei denariotan saltzen zen, hau da, nekazari baten egun osoko soldatak adina balio zuen. ■



Arrastoak

The Washington Post-ek 135 urte



THE WASHINGTON POST egunkariak 135 urte bete berri ditu. 1877an sortu zuen Stilson Hutchinsonek aldizkaria, eta 1880an egunkari bihurtu.

AEBetako egunkaririk zaharrena ia mende osoa behar izan zuen mundu osoan ezagun egiteko. Duela 40 urte, 1972an, *The Washington Post*-eko kazetari Carl Bernstein eta Bob

Woodward Watergate eskandalua ikertzen hasi ziren, baita egunkarian horren berri eman ere.

Kazetariaren ikerketaren emaitzen ondorioz, Richard Nixon AEBetako presidentek dimisioa aurkeztu zuen 1974ko abuztuaren 8an; ezkerreko argazkian, biharamuneko alea, dimisioaren berri ematen. ■

Tokiko ekonomia garatzeko funtsezko moneta

Euskal Moneta elkarteko kideak dira Xebax Christy (Aiherra, 1979) eta Mendi Esteban (Ezpeleta, 1988). Informatika eta Artearen historia ikasi dituzte hurrenez hurren. Ekonomian ere trebatu dira tokiko moneta antolatzeko. 60 lagun inguru ari dira lanean euskal moneta zirkulazioan jartzeko: Eusko izenekoa. 2013ko urtarrilaren 31n jarriko da abian.

| MIKEL ASURMENDI |

Argazkiak: Dani Blanco



Mendi Esteban eta Xebax Christy, Euskal Moneta elkartearen eta Eusko monetaren sortzaileetako bi.

EUSKAL MONETA elkarteko kideok 2010eko azaroan ezagutu zituzten Akitaniako (Ôlt e Garona) Ville-neuve-sur-Lot herriko Abeille monetaren kudeatzaileak. Harremanetan jardun ondoren, tokiko moneta sortzea pentsatu zuten.

Jende anitz aurkitu dute proiektuaz interesatua. 2011ko ekainean elkartea eratzen hasi ziren eta urte bereko irailean abian jarri zuten. Heldu den urtarrilaren 31n jaulki-ko da euskal moneta: Euskoa. "Iparraldeko hainbat elkarterekin

bildu gara haien iritzia ezagutzeko. Tokiko ekonomiaren garapenean nola ingurumenean ari direnak, baita gai sozialetan edota euskalgintzan ere. Tokiko moneta sortu nahi dugula erran diegu, zabalki galdetu diegu, zabalki bildu



Sei talde

Irailean Biltzar Nagusia egin genuen bigarren fasera pasatzeko. Sei lan talde sortu ziren. Orotara 60 lagun inguruk eman dugu izena lan taldeetan: 1. Erabiltzaileei zuzendua. 2. Zerbitzu-emaileei begira: enpresak, merkatariak, artisaauak, elkarteak... 3. Azpiegiturak lantzen dituenak: aldaguneak, txartel kidetzeko kartak eta informazioa. 4. Diru laguntzaz arduratzen dena. 5. Itzultzaile taldea. 6. Informatika taldea. Gidaritza taldeak denen arteko koordinaketa eta aldiari aldiko bilana egiten du. Une honetan bereziki, informatika taldea buru-belarri ari da jendea sarera ekarrarazteko eta billeteak non, nola eta zenbat kostako duten informatzeko.

“Herrikoa-rekin partaidetza dugu. Herrikoak Herrikoa fondoa sortu du. Halaber, Crédit Coopératif eta NEF bitartez ari gara euskoa antolatzen. Ez da banku klasiko batean sosa ukaitea bezala”

Xebax Crhisty

asmoz”, adierazi digu Euskal Monetako Mendi Estebanek. “Zer zuten errateko eta egiteko ere entzun dugu. Urte luzean bilkuretan izaniko iritziak aztertu ditugu”, gehitu du Xebax Christyk.

Eusko izena du Iparraldean sortzeaz dagoen monetak.

Xebax Christy: Izena emateko lan berezia egin dugu. Jendea izenak galdetu eta proposatu dizkiegu lehenik. Epai-mahai bat bildu zen lehen aukera egiteko eta zazpi izen gelditu ziren. Aurtengo Herri Urrats egunean eusko izena eman zen ezagutzera hain zuzen ere.

Mendi Esteban: Proposamen gehienak euskaraz izan ziren. Hamairu epailek erabaki dute. Tokiko pertsonalitateak dira, euskaldunak eta ez-euskaldunak. Ez-euskaldunak izanda ere, izena entzutea eta ahoskatzea zaila ote zuten jakin nahi genuen.

Zein helburuz jaulkiko da euskoa?

Christy: Tokiko moneta izanik tokiko ekonomia indartzea dugu helburu. Euskoak tokiko moneta guztiek komunean duten ezaugarria dauka. Euskoa Iparraldean baizik ez da baliatu ahal hastapeanean. Eman dezagun, euskoak denda batean erabiltzen baditugu, dendariak berriz baliatu beharko ditu hemengo enpresetan. Beraz, dirua gure lurraldean itzulikatuko da. Ez da euroarekin den bezala, adibidez, enpresa batean erabiltzen da, eta gero ateratzen da kanpora, noranahi. Funts handiena tokiko ekonomia garatzea eta berriz inbertitzea da. Halaber, tokiko enpresen arteko harremanak lantzea dugu xede, enpresen arteko sare bat sortzea ekonomia azkartzeko. Elkarteak baditu beste helburu batzuk, guretzat garrantzi bera dutenak: euskararen erabilpena sustatzea bizi-publikoan eta ingurumenaren gaia era praktikoan bizitzea. Beraz, sarean sartzen diren enpresei gai horietan engaiatzea galde egiten diegu.

Nola eraten da moneta klase hau?

Esteban: Biziki sinplea da. Eskuko billeteak izanen dira eskura: eusko bat euro baten truk. Eusko monetaren ukaiteko elkarteko kide izan behar duzu. Erabiltzaile bezala joan zaitezke tokian tokiko aldaguneetara, eta eusko-kidetzaren txartela eskuratu. Aldagune guztietan alda ditzakezu euroak. Ehun eusko erosteko ehun euro behar duzu. Aldatu duzun %3 zuk hautatu elkarte batera joan da. 100 euro 100 euskoren truk, gehi 3 elkarte batentzat.

Nondik datoz 3 euro horiek?

Esteban: Guk emanen ditugu 3 euro horiek. Gure helburua Iparraldean dirua zirkularaztea da, hornitzaileak atzeman behar ditugu zirkuitu baten antolatzeko. Alabaina, sekula dendek edo enpresek berriz ere euskoa aldatu nahi badute euroaren truk, egin ahalgo dute. Ordea, orduan haiak %5 galduko lukete euroetan. Gure helburua ez da aldatzea halere, ez aldatzea baizik. Noski, norbaitek aldatu nahi badu, ez duelako atzematen berak nahi dituen hornitzaileak, edo eusko gehiegi dituelako, orduan, 100 eusko itzuliko dizkigu eta guk 95 euro emanen dizkiogu. Guk atxikitzen ditugun bost euro horietatik 2 joanen dira Euskal Moneta elkartera eta 3 beste elkarteentzat.

Inork ez badu itzultzen ez duzue kapitalik eginen. Nolabait erranik.

Esteban: Gure helburua ez da kapitalaren egitea. Guk hastapeanean 3.000 euro ezarri behar dugu. Zuk erabiltzaile eta kide bezala. 100 eusko erosten dituzu eta hautatu duzun elkarteari 3 eusko eman behar dizkiogu. Eman dezagun euskoak ongi zirkulatzen duela, guregana ez da billeterik itzuliko eta hainbat hobe.

Christy: Guk 100.000 eusko inprimatuko dugu, beraz, 100.000 euro behar ditugu, erabiltzaileek guri emanak. Abiatzeko 3.000 euro behar ditugu guk, besterik ez.

Zein dira euskoaren berezitasunak?

Christy: Usaian, Abeille moneta edo antzeko beste proiektuetan bezala, euskoak zirkulazioan ema-

tean, hainbeste diru atxiki behar da bankuan. Legeak hori egitera behar-tzen zaitu. Legearen arabera ez dugu dirua sortzen baina euskoak emateko Euskal Monetak galde egin du dirua bankuan jartzea, ekonomia soziala finantzatzen duen fondo batean, gure kasuan Crédit Coopératif bankuan. Hortaz, diru hori erabili gabe uzteko orde, bankuak erabili ahaliko du ekonomia sozialean. Bestalde, Herrikoa [arrisku-kapitaleko] sozietatearekin partaidetza dugu. Herrikoak fondo bat sortu du. Guk 100.000 euro trukatzeko ditugu, erran bezala, eta Herrikoak sos hori hemengo proiektuak sostengatzeko emanen du fondoan. Halaber, Crédit Coopératif eta NEF (Finantza Solidarietarako Kooperatiba Elkarte) bitartez ari gara euskoa antolatzen. Ez da banku klasiko batean sosa ukaitea bezala.

Legea aipatu duzue, sakondu alderdi horretan.

Esteban: Dirua titulu batzuk pagatzeko izaten da, tituluak txartel bereziak dira. Legean sartzeko, has-teko elkarte baten kide izan behar dugu. Orduan, kideak eskatzen dugu bai erabiltzaileentzat bai zer-bitzu edo enpresa emaleentzat txartelen bitartez. Hala berean, legez, zirkulazioan diren euskoen pareko euroak behar direla ukan bankuan.

Christy: Beti prest izan behar dugu euskoaren truk euroetan ordaintzeko, edo frogatzeko dirurik ez dugula sortzen, eta ehun eusko aterata ere ehun euro badugula bankuan. Kapital hori aipaturiko Crédit Coopératifen dago. Frantziako Bankuak kontrolatzen ditu sosa eta billeteak.

Esteban: Frantziako Bankuarekin egon gara, ez ginen baitezpada egon behar, baina egiten ari garenekin absolutuki ziur egon nahi genuen. Frantziako nahiz Europako legetan adituak diren abokatuekin izan gara kontseilatuak izateko.

Sareaz beste zerbait erraiterik?

Esteban: Sarearen antolamenduan bi fasetan ari gara: erabiltzai-

leekin kontaktatu dugularik, haiek sartzen dituzte beren datuak Internet bidez. Gero geuk joan behar dugu haiengana espresuki funtzionamendua ontsa esplikatzen. Interneten 150 izen dira une honetan, baina denek ez dute oraindik sinatu. Enpresak eta komertzioak dira, besteak beste. Gu interesatuak gara informazio ahalik eta gehien ukaiteko eta emateko, baina gure kezka da postaren gibelean daudenak fisikoki ezagutzea. Usu entzuten edo irakurtzen baitugu interesgarria dela, baina gero ez dute pausoa aurrera ematen. Lan luzea da.

Instituzioekin hitz egin duzue?

Esteban: Kontsumitzaileei eta enpresei buruz ari direnek harremana ukan dute Herriko Etxeekin. Printzipioz ongi atzematen dute ideia, subentzio kanpaina abiatu dugu, nolako harrera edo emaitzak ukanen ditugun ez dakigu, oraindik ere arraposturik ez baitugu bildu. Ikusiko zer ematen duten.

Herrikoa aipatu duzue. Inportantea da bere engeiamendua, ezta?

Esteban: Batetik, kapital-arrisku sozietate horren sostengua ematea biziki inportantea da, eta gero, zerbait gehiago ere bada, fondo parekidea sortu baitu guretzat: zuk erosten baduzu euskoa, euro bakoitzarentzat eusko bat ukanen dugu bankuan eta HERRIKOAK diru zama bera inbertituko du Iparraldeko ekonomian. Ez badirudi ere, eragina izugarria da. 100 euro aldatzen badituzu, zuk ez duzu erosteko ahalmenik galtzen, elkarteari sosa ematen diozu eta gainera 100 euro inbertituak izanen dira gure ekonomian. Orduan zure erosketak dimentsio handiago hartzen du.

Zuek ez zarete banku bat, baina nola bizi-araziko duzue zuen elkartearen egitura?

Esteban: Momentuko militanteak gara, alta, gure asmoa ere bada lan postuak sortzea, bat edo bi. Noski, lehenik pertsona egokiak izan behar dira, profil egokia dutenak,



Urtarrilaren 31n zirkulazioan

Euskoa urtarrilaren 31n izanen da karrikan. Egiteko ez dugu deus eskas edo falta, kezka bakarra da kideak tenorez ukaitea, hori da orain gure nahia eta beharra, biziki garrantzitsua baita lehen urratsa ongi ematea. Jendeak usaian geroko uzten du, eta guretzat –eta enprezentzat bereziki– katalogoak aitzinatua izatea inportantea da. Katalogoak egiten ari gara, jendeak nora joan behar duen jakiteko behar dituhoriek, eta horrek badu epe bat. Euskoa urtarrilaren 31rako prest eta jendearen eskuetan behar dugu. Egun horretan, eta aitzinetik ere billeteak aurkeztuko ditugu jendearen gogoia pizteko. 100.000 eusko: 1, 2, 5, 10 eta 20ko billetean.

“Eusko monetaren ukaiteko elkarteko kide izan behar duzue. Erabiltzaile bezala joan zaitezke tokian tokiko aldaguneetara, eta eusko-kidetzaren txartela eskuratu”

Mendi Esteban



“Gure helburua enpresa berri batzuk laguntzea da, aktibitate berriak sortzea, euskoak eskas den zerbait lagun dezan, baina eskas horiek zein diren ongi atzeman behar dugu” erran digute Euskal Moneta elkarteko kideok.

oinarrian militanteak izan behar dute, proiektuan sinetsi behar dute. Gure irizpide nagusiekin bat egin behar dute. Guk ez dugu dirua sortuko, proiektuak sortzeko sosa da euskoa, baina egia da, aldi berean, gure auto-finantzamendua ere atzeman behar dugu. Geroak erran...

Billeteak nork eginen ditu? Faltsutzen ahal direla, pentsatu duzue?

Christy: Inprimategi batek eginen ditu, billeteek ziurtasun sistema bat ukanen dute, euroek duten bezala. Gure billetetan ere banda distiratsu bat izanen da, marrazki bat izanen da, papererean txertatua. Euro-billete bat fotokopiatzen baduzu ageri da berehala, beltza bilakatzen baita, euskoarekin ere berdin.

Esteban: Inprimategiak guretzat paper berezia ere manatu du, euskoa euroaren ohiko paperean izanen da inprimatua.

Krisi egoerak laguntzen al du zuen proiektua? Edo alderantziz?

Christy: Krisiarekin euskoaren beharra duela hamar urte baino handiago da beharbada, zeren eta euskoak erabiltzean, Iparraldean, badakizu hemengo ekonomia indartuko duela.

Esteban: Krisiaren kontzientzia sortzen eta handitzen ari da, eta euskoak oraino gehiago lagundu dezake zentzu horretan. Jendea ari da ulertzen zergatik den gero eta inportanteagoa tokian tokiko merkatuan kontsumitzea.

Laster izanen dira billeteak zirkulazioan. Zein duzue zeregin behinena?

Esteban: Lehenik 100.000 eusko inprimatu behar ditugu, eta horiek abian jarri, hastapenean hori da gure pario nagusia. Gero helburua ahal bezainbat billete zirkularaztea da, billeteen berraldaketa ahal bezain gutxi izatea. Hori ziurtatu behar da zirkuitua ongi osatzeko. Halaber, Herrikoaren bitartez, berak maileguak egiten baititu enprekin, berak zer diruztatuko duen enpresetan ontsa behatu behar dugu. Gure helburua enpresa berri batzuk laguntzea eta aktibitate berriak sortzea baita, baina euskoak eskas den zerbait lagun dezan, oraindik ere eskas horiek zein diren ongi atzeman behar dugu.

Christy: Neuretzat euskoak izan dezake bi eragin: lehena, tokiko sarea sortzean, hemengo jendeen arteko harremanak azkartzea, ez

bakarrrik enpresen arteko harremanak, baina kontsumitzaileek enprekin, elkarteekin, horien arteko harremanak indartzea, kanpotik ekarrarazi ordez, tokiko gauzak xerkatzea; gauzak egiteko manera beste moldez pentsatzea tokiko gure arteko dinamikak sustatuz. Adibidez, euskoa ukanen duten enpresek euskarari buruzko pegatina bat ukanen dute euskoa erabiltzen eta onartzen dutela adierazteko. Katalogoa landu dugu haiekin informazioa euskaraz eman dezaten edo euskara ikas dezaten langile batzuek. Orduan espero dugu euskaraz aiseago mintza dezaten denda zenbaitetan, euskararen inguruan ahaleginak egiten ari baitira.

Iparraldean abiatu duzu ekimena, Hegoaldean segitzeko gero, agian?

Esteban: Hastapenean gure asmoa mugatu dugu, gero ahal bezain naturalki zabaldu nahiko genuke gure proiektua Hegoaldera. Tipiki hasi nahi genuen, Iparraldea aski zabala baita abiatzeko. Bigarren aldi batean ikusiko dugu. Adibidez, hemengo komertziantek batek galde egiten badigu han badituela hornitzaile potentzialak eta sarean nahi dituztela sartu, aitzina. Gertatzen ari da jadanik, batzuek kontaktua badute Hegoaldeko bezero batzuekin. Momentuz ez dago gure egunerokoan, hemengoarekin aski dugulako. Egia erran, hasteko hango legeak ongi aztertu behar ditugu, legezko behar guztiekin ongi aritzeko. Hemen hasteko kontseilatuak izan gara juridikoki, ziur ez dugula petorik eginen.

Christy: Hegoaldeari buruz bada lana egiteko. Orain sortzen ari den proiektua bi urterako abiatu da, eta gero ikusiko dugu.

Seaskak antolatu ohi duen Herri Urratsean euroaren pare erabiliko da ere euskoa?

Christy eta Esteban: Guk horrela nahi genuke. Antolatzaila onartzen baldin badute, posible izanen da ere tokiko txartela euskotan erostea. ■



Hizkuntza gutxituentzat ere, azpigituluak

Topaguneak antolatuta eta erreportaje honen egileak gidatuta, Durangoko Azokako ekitaldien baitan *Azpigituluak ala bikoizketa* eztabaidari heldu zioten Luistxo Fernandez azpigituluak.com webguneko kideak, Marian Galarraga bikoiztaileak, Iñako Gurrutxaga ETB3ko koordinatzaileak eta Ane Muñoz zine-zuzendariak. Hona solasaldiak emandakoa.

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |

Helduentzat, azpigituluak

HASIERATIK garbi utzi dute mahaiki-deek euren hautua: helduei zuzendutako lanetan eta filmetan oro har, azpidatziak erabiltzearen aldeko dira, jatorrizko bertsoiak bikoizketa-rekin gehiago galtzen duelakoan, azpigituluekin baino. “Aktoreengan pentsatuz krimena iruditzen zait bikoiztea, antzezenaren zati handi bat galtzen baita –dio Ane Muñozek–. Gainera, Txinako herritarrek euskaraz edo gaztelaniaz hitz egiten entzutea sinesgaitza zait”. Bikoiztuta ematekotan, bikoiztaileen lana asko

zaindu beharko litzatekeela uste du, baina azpigituluak ere ondo landuta eskaini behar direla azpimarratu du: “Nik zuzendutako *Basurdea* labur-rean, adibidez, protagonistak Hondarribiko bi arrantzale dira eta haien hizkera eta esamoldeak mantendu nahi nituen; azpidatziatan ere islatu beharra zegoen hori, ezin ziren azpigitulu neutroak izan, eta horretarako ‘*bemos encontrau*’ eta halakoak erabili nituen. Era berean, planoak, enkoardaketak eta abar pentsatzerakoan kontuan izan nuen azpigituluak erabiliko nituela eta hori aurreikustea

baliagarria da, irakurtzea egokitzen denean irudi beteegia ez jartzeko, esaterako”. Izan ere, Iñako Gurrutxagak adierazi duen moduan, azpigituluekin ere galtzen da informazio zati bat, irakurri bitartean irudian ageri diren ñabardurak gal daitezke, baina bere gabeziekin, bikoizketan baino txikiagoa da galera.

Asko galtzen dela aipatu dute, adibidez, film eleanitzen bikoizketan: pertsonaiak hainbat hizkuntzatan aritu arren, hizkuntza bakarrera itzuli ohi dute –gaztelaniaz bai behintzat–, hizkuntzen arteko joko

Ezker-eskuin: Ane Muñoz (zine-zuzendaria), Luistxo Fernandez (azpigituluak.com), Iñako Gurrutxaga (ETB3) eta Marian Galarraga (bikoiztailea). Laurok uste dute jatorrizko bertsoiak gehiago galtzen duela bikoiztuta, azpidatziatan baino.



ezabatuz. Azpituduekin, aldiz, trikimailuak daude, kortxeteak, letra etzanak, koloreztatuak... aktoreak hainbat hizkuntzatan ari direla irudikatzen.

Euskarazko bikoizketaren kalterako, helduak ez daude ohituta filmak hala ikustera, erdarara bikoiztuta ikusi dituztelako gehienbat, eta arrotz egiten zaie euskaraz entzutea, dio Marian Galarragak. Ez hori bakarrik, pelikulak ez daude gaztelaniara bezain ondo bikoiztuta, gaztelaniarazko bikoizketak direlako munduko onenak. Luistxo Fernandezek ere esperantza gutxi dauka euskarazko bikoizketan eta nahiago du seme-alabak jatorrizko bertsioan hezi, “baina film eta telesailetatik harago, badago beste material pila bat bikoiztuta hobeto kontsumitzen dena: dokumentalak kasu, jatorrizko ahotsaren gainetik egiten den bikoizketa merkea erabiliz”. Edozein euskarrik ere ez du azpitudue-tarako balio. “Lehengoa lagun batek esan zidan mugikorrean film korear bat ikusten aritu zela azpituduekin –kontatu du Muñozek–, eta horri, hain pantaila txikian azpidatziak jartzeari, ez diot zentzurik ikusten”.

Marrazki bizidunak eta haurrak

Umeei eskainitako ikus-entzunezkoetan ere, ados jarri dira solaskideak: bikoizketa jotzen dute beharrezko, irakurtzen ez dakiten etxeko txikientzat. Gurrutxagak gogoratu du kate euskaldun nahiz erdaldunetan ematen dituzten marrazki bizidun berak ikusteko arazorik ez dutela haurrek, hizkuntza batean zein bestean, eta Fernandezek gehitu du adin batetik aurrera, 7-8 urterekin, hizkuntzari baino bikoizketaren kalitateari erreparatzen diotela gehiago, marrazki bizidun berak euskaraz edo erdaraz aukeratzeko garaian. Alegia, ahotsai

Euskarazko bikoizketa

Marian Galarraga: “ETB sortu zenean produkzio ikaragarria egin behar izan genuen, batez ere marrazki bizidunak, txurroen moduan, eta bitako bat: edo kalitatea edo produkzioa. Bikoiztaile asko ohitu zen marrazki bizidunak egiten eta gero pertsonaia erreala marrazkietako ahotsarekin bikoizten zituzten. Hori kentzea asko kostatzen da”.



Woody Allenen *Erdipurdiko alprojak*, euskaraz azpidatuta (irudian). “Mongoliako film batean aktoreak euskaraz hitz egiten entzuteagatik ez dut euskara gehiago jakingo; aldiz, alde artistikoa sakrifkatuko dut bikoiztuz gero”, dio Ane Muñozek.

eta bikoizketa ondo egingo egoteari garrantzia emango diola haurrak, gustukoago zein duen erabakitzen.

Baina zein adin da egokia azpituduetara jauzi egiteko? Luistxo Fernandezek eman dizkigu arrasto batzuk. Bere esanetan, frogatuta dauka 9 urterekin hasten direla azpituduekin irakurtzeko eta jarraitzeko gaitasuna lantzen, eta 10ekin gauza direla filma azpidatziekin ikusteko. Areago, “munduko zine produkzio onenetakoak marrazki bizidunetan ikusten ditugu batzuetan, eta Pixar edo Miyazaki estudioetako pelikula asko hain dira biribilak, 4 urteko ume batek ere erraz ulertuko lituzkeela jatorrizko bertsioan entzunda, ingelesez nahiz japonieraz”.

Euskararen normalizazioaren mesedetan, zein hobetsi?

Euskara hizkuntza gutxitua dela eta erdaraz inguratuta bizi garela ez dute ahaztu mahaikideek; ildo horrek eman du eztabaida luze eta mamitsuena. Euskararen egoerak eraginik ba al du eredu bataren edo bestearen alde egiteko? Galarragak nabarmendu du telebistan nahiz zinema-aretoetan erdarazko lanen bonbardaketa

jasaten dugun heinean, euskara babestu behar baldin badugu beharrezkoa dela lanak gure hizkuntzara bikoiztuta ere jasotzea: “Beti diot, areto batean pelikula erdaraz eskaintzen badute, albokoan euskaraz bikoiztua behar du egon, hizkuntza batean edo bestean ikusteko aukera eman. Nahiko nuke lege bat jarriko balute, hemen eskaintzen diren film guzti-guztiak euskaraz eman daitezkeen. Hobe direla azpituduekin? Ados, azpidatzi dezagun euskaraz, baina orduan gaztelaniarazko bertsioa ere azpitudulatu izan dadila, dena eskaini dadila jatorrizko bertsioan eta hizkuntza batera eta bestera azpitudulatu, bestela desabantaila gorian dago euskara, gaztelaniara bikoiztutako filmez inguratua”.

Gurrutxagaren ustez, jendea ez da joango euskarara bikoiztutako pelikula ikustera, ondoko aretoan gaztelaniaraz baldin badu, bikoizketan sekula ezingo dugulako erdarazko bertsioarekin lehiatu. Horregatik, kontrako estrategia izan daiteke gakoa, euskaraz kontsumitu nahi duen jendeari azpidatzen aukera ematea: “Bikoizketa jaio zen hitzun askoko herrialdeetarako, gu lau katu

Datorren ETB

Iñako Gurrutxaga: “Agintari berriek ETBn zein asmo izango duten ideia handirik ez daukagu, baina ez dut zalantzarik bikoizketaren alde egingo dutela, batez ere audientziagatik. Zineman ere ez da pelikula azpidatirik programatzen, jendea ez doalako, eta telebistan ikusi dugu, saiakerak egin ditugunean, audientzia emaitzak ez direla onak”.

Atzerriko ereduak

Luistxo Fernandez: "Tamainaz hizkuntza handiegiak ez dituzten Europako herrialde askotan, fikzioa jatorrizkoan ikusten dute azpigitulatuta. Azterketen arabera, korrelazioa dago azpidatziak erabiltzearen eta ingelesaz herritarrek duten ezagutzaren artean. Gainera, irudiari testuak egin diezaioketen trabarekin ez daude kezkatuta; Estonian, filmek bi azpigitulu lerro dituzte, errusieraz eta estonieraz".

gara eta ez da aski bikoizketa industria bat sustengatzeko, zergatik ez dugu zabaltzen gauzak azpigitulatuta kontsumitzeko ohitura gure gizartean? Lagun argentinar batek esan zidan kontrako joera gertatzen ari dela han: duela gutxira arte normalena zen dena azpidatza ikustea, orain aldiz dena bikoizten ari dira eta lagunak ezin du jasan, beste era batera hezi delako. Horregatik diot ohitura kontua dela, hasieran zaila izango da, baina noizbait hasi beharoko gara kultura hori aldatzen, eta jendea ohitu egingo da azkenerako".

Galarragaren hitzetan, areto batean filma erdaraz eskaintzen badute, albokoan euskaraz bikoiztua behar du egon. Bestela, dena jatorrizko bertsoan eta hizkuntza batera eta bestera azpidatza

Gainera, hizkuntzaren normalizaziorako azpidatziak oso lagungarriak direla iritzi dio Muñozek: atzerriko hizkuntzan egina dagoen filma euskaraz ari gara irakurtzen, ez gara ari gaztelaniaz edo frantsez pentsatzen, euskaraz baizik. Halaber, bikoizketa defendatzeko argudiatzea hizkuntza ez dagoela normalizatuta arriskutsua iruditzen zaio zine-zuzendariari. Euskara mantentzeko bide asko daude, "eta Mongoliako pelikula batean protagonistak euskaraz hitz egiten entzuteagatik ez dut euskara gehiago jakingo; aldiz, alde artistikoa sakrifikatuko dut bikoiztuz gero eta zinemasale bezala beste xehetasun batzuk galduko ditut".

Esan bezala, ordea, ohitura da gilitza eta arazo, azpigituluak hedatzeko. Ikus-entzunezko kontsumo moduak aldatzen ari da Internet, hainbatek sarean edo saretik jaitsita ikusten ditu film eta telesailak, sarri azpidatza. "Ezin duguna pentsatu da euskara hegemonikoa izango denik kontsumitzen dugun telebista panoraman —hartu du hitza Luistxo Fernandezek—. Euskararen presentzia geroz eta txikiagoa izango da geroz eta kate gehiago dauden neurrian, LTDarekin ikusi dugu, eta gutxienez aukera bat izan daiteke norberak pelikulak saretik jaitsi eta euskarazko azpigituluekin ikustea. Azpigituluak.com proiektua hor dago, itzulpen lana egiten duten boluntarioei esker katalogoa egiten goaz, eta mereziko luke euskarazko azpidatziekin artxibo herrikoiki bat osatzea, ahalik eta zabalena. Zentzu horretan, garrantzitsua litzateke ETBk duen azpigituluen artxibo oparoa partekatzea, pelikula askoren azpigituluak eginak dituelako jada, baina ezin dira eskuratu". ETB3ko koordinatzaileak ere uste du ETBk lizentzia publiko eta askea izan behar lukeela.

Azken ohar bat ere egin du Gurrutxagak: euskara bultzatzeko, atzerriko ekoizpena euskaratzea baino gehiago, bertako euskarazko produkzioa indartzea da bidea.

Faktore ekonomikoa

Askoz garestiagoa da bikoiztea, azpidatzea baino. Zein pisu du eta zein pisu izan behar luke faktore ekonomikoak ereduaren aukeraketan? Euskal Telebista Publikoa oinarri hartuta heldu dio laukoteak gaiari. ETB3ko koordinatzaileak azaldu duenez, garestia den ala ez baino gehiago, audientziari begiratzeko dio telebistak, eta oraingoz bikoiztutako lanak erakartzen du

Euskarazko filmak kanpoan

Ane Muñoz: "Produktoren aldetik presioa egon badago, eta lehen, filma atzerrian mugitzeko baldintza bat izaten zen bikoiztea, baina orain azpidatziekin banatzera ohitzen ari dira, 80 egunean edo Urte berri on, amona! dira horren lekuko. Garrantzitsuenak da pelikula ona izatea, berdin dio hizkuntzak, eta ona bada, beste edozein hizkuntzatan bezain ongi mugituko da atzerrian, azpidatza".

ikuslea. EITB erakunde publikoa izanik, irizpide ekonomikoaz gain industria eta gizartearekiko konpromisoa ere aintzat hartu behar dituela gaineratu du, eta telebistak akordioa duela bikoizketa industriarekin, bikoizketa kuota bat mantentzeko. Galarragaren hitzetan, helduentzako edukiak azpidatza eskainita ere, ETBk haur eta gazteentzat filmak euskaratzeko apustua egingo balu, nahikoa litzateke dauden bikoizketa etxeen industria sostengatzeko, "hainbeste ere ez daudelako".

Bikoizketan erdarazko bertsoarekin sekula ezingo dugula lehiatu eta kontrako estrategia proposatu du Gurrutxagak: euskaraz kontsumitu nahi dutenei azpidatzen aukera eman, ohitura zabaldu

Lehentasun ekonomikoetan, horren guztiaren abiapuntuan dagoen "arazo konponezina" salatu du azpigituluak.com-eko kideak: "Euskarazko ikus-entzunezko kooperazio ekonomiko publiko handiena gaztelaniazko etxe handi bat finantzatzeko da. EITB erakunde erabat diglosikoa da eta ez dago alderdi politikorik euskara hutsezko ETB nahi duenik. Kataluniari begiratu beharoko genioke arlo horretan, han ez baitzaie burutik ere pasatzen gaztelaniazko telebista publikoa izatea eta politika horrek urrats gehiago ekarri ditu atzetik, katalanera bikoiztutako film kopuru bat mantentzea zine-man, esaterako". ■



Gabonetako jostailu-katalogoetan, sexismoa nagusi

Jasone Zarate Emiliok artikulua idatzi du *Pikara* magazine webgunean, Gabonetako jostailu-katalogoetako irudi sexistak aztertuz: “Mezua orain dela 30-40 urteko berbera da”.

| ONINTZA IRURETA AZKUNE |

JASONE ZARATE EMILIOK urteak daramatza jostailu etxeek Gabon garaian banatzen dituzten katalogoak aztertzen. Nahiz eta urteak pasa, betiko paisaia gailentzen dela iruditzen zaio: neskenentzat orrialde arrosa-arrosak eta mutilentzat urdinak edo kolore indartsukoak. Neskak ume zain eta ilea apaintzen ari dira eta mutilak abenturazaleak eta kirolzaleak dira. Hausnarketa orokorraz gain hainbat jostailu etxeren katalogoen errepaso egin du, adibide zehatzak emanez.

Zarate Emiliok *Pikara* magazine webgunean argitaratu du gogoeta. Hona pasarte batzuk:

“2005ean Chicco etxeari eskutitza bidali nion, eta 2009an, beste bat Imaginariumi, gaia aipatuz, hausnarketa egin eta kritikatu. Uste bezala, eze-



Max Centerrek egindako iragarki sexistak: “Ni Barbie nintzen eta zu Hot Wheels-eko txapelduna. Ados?”, dio irudiko neskatxak.

rezean geratu zen dena. Baliteke gauza zehatzen batean desberdintasun txikiren bat izatea, baina sako-neko mezua bera da, eta larriagoa dena, mezua orain dela 30-40 urteko berbera da (zifraren bat aipatzearen).

Arazoa hezkuntzan dago, esaten dugu. Eta nik galdetzen dut: “Ze-

“Etxean gurasook frogatzen dugu, haurrek beraientzat ez omen diren orrialdeak nola pasatzen dituzten. Ez dakite gustatzen zaien ala ez”

nek hezten du? Zein da hezkuntza horren arduradun? Zeinek transmititzen ditu baloreak, jarrerak, rolak eta estereotipoak? Eskola al da errudun bakarra?

Etxean gurasook frogatzen dugu, haurrek beraientzat (neskek ‘mutilentzakoak’ eta mutilek ‘neskentzakoak’) ez omen diren orrialdeak nola pasatzen dituzten. Ez dakite gustatzen zaizkien ala ez, edo egunen batean desira ditzaket. Ateak ixten zaizkie deskubritzeko eta probatzeko. Bestalde, jaiotzan eman zitzaizkien sexuaren arabera rol bat ematen diete.

Seme-alabekin amek eta aitek duten egitekoa asko azpimarratzen dute (eta ondo egina), haiei garatzen laguntzeko eta abar. [Katalogoetan] aitek funtzio gehiago dituzte;

hori bai oso markatuak: mahai jolasak, kotxeak, eskaletriak, pintura, energia, aginduzko tablet antzeko teknologiak... darabiltzate, eta batzuetan mutilekin baino ez. Amak gutxi ageri dira (umeekin jolasteko denborarik ez daukagulako izango da) eta agertzen direnean alabekin irakurtzen ari dira edo haur txikienekin lurreko zapian eserita daude.

Gure neska eta mutilek, bihar-ko gazteek, etziko helduek, jolas-tuz ikasten dute; eta jostailuen eta jolasen arabera balore eta jarrera sexistak betikotu egiten dira. ■



MARCOS
skindegia

**Benetako
aitzinako ogia**

© 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)

Arizmendi Ikastolako haurrek bideokliparekin amaitu dute ‘Jatorrizko Herriak’ egitasmoa

JATORRIZKO HERRIAK egitasmoak helburu nagusi bat izan du: haurrei erakustea munduan jatorrizko hizkuntzak, nortasunak eta kulturak direla. Arrasaten, Aretxabaletan eta Eskoriatzan dagoen Arizmendi Ikastolak Garabide elkartearen laguntza izan du egitasmoan. Munduko jatorrizko hizkuntzen eta herrien errealitatea haurrei gerturatzeko, proiektua bideokliparekin amaitzea pentsatu zuten. 2 eta 5 urte bitarteko haurrek grabatu dute ikus-entzunezkoa Arrasateko Shot! estudioan. Gipuzkoako Debagoiena bailarako haurrez gain, Mexikoko, Guatemalako, Katalunia-ko eta Galiziako haurrek hartu dute parte. Guztira 120 bat aritu dira. Ikus-entzunezkoan hainbat herritako neska-mutilak agertzeaz gain, Arizmendi Ikastolako txikiak txotxongi-
loak galegoz ezagutzeko aukera izan dute, sistema maian oinarritutako matematikak, Guatemalako kakchikel hizkuntza, baita Mexikon hitz egiten den nauahtl hizkuntza ere.



ARIZMENDI IKASTOLA

Arizmendi Ikastolako haurrak munduko jatorrizko herriak eta hizkuntzak ezagutzen.

Bahea

Vivane Biancarelli Korsikako parlamentariak Garan esanak:

“Euskal Herrian deigarriena egin zaiguna da elkarteek Korsikan baino parte-hartze handiagoa dutela. Hizkuntza erakundeen esku utzi da Korsikan. 1970eko hamarkadan elkarte ugari zegoen, baina gero hezkuntzaren eta erakundeen esku utzi zen. Konturatu gara Euskal Herrian elkarte askok daukala barneratuta hizkuntzaren transmisioa, eta nire ustez, giltza da. Klabea da baita ere, konbentzitzeko modua, eta ez inposatzekoa”.

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Cervera eta Nafarroako Kutxaren auzia

Nafarroan azken egunotan izandako gertakari arraroak –PPko diputatu Santiago Cervera eta Nafarroako Kutxako presidente Jose Antonio Asiain protagonista ofizial direla– epizentroa Nafarroako Kutxan (CAN) duen historia baten parte dira: Banca Cívica-
ra igarotzea eta ondoren Caixabank-ek bereganatzea, operazio horretan desagertu baitzen Nafarroako entitatea. Beraz, ez da soilik “Cervera auzia”, CAN auzia baizik. Eta batzuk, CAN auzia ahazteko, saiatzen ari dira “Cervera-Asiain auzia” bihurtzen hau guztia. Egia da biak ala biak finantza erakundearen desagertzea ekarri duen prozesu ilunean nahasirik daudela, UPN, PP eta PSN nahasita dauden moduan. Arraroak izan dira Cerverari igorritako e-posta ezezagunak, eta CANi buruzko ustezko informazioa jasotzera joateko honek hartutako erabakia; arraroa “delituaren” tokian guardia zibilek Cervera atxilotu izana; arraroa Asiainek Cervera salatzea estortsioa egiteagatik; ondoren diputatu eta PPko militante gisa

dimititu izana; PPren kupularen erreakzio hotza... Baina gertaera horiekin ezin dugu ahanzi kontu harrigarriaren atzean nabarmentzekoa dena, eta oraindik inork argitu ez duena: Nafarroako Kutxaren auzia. Nafarroako entitatea 160 milioi eurotan saldu zuten, bere balio erreal 1.000 milioi euro ingurukoa izanda. Antza denez, Cervera oso kritikoa izan zen Caja Solekin batera Banca Cívica martxan jarri zutenean eta ondoren Caixabank-i saldu ziotenean. Datu batzuk oso ondo jakingo ditu berak. Nola egin zen operazioa? Zein erantzukizun du Miguel Sanz (UPN) Nafarroako presidente ohiak? Zein erantzukizun CANeko zuzendari nagusi ohi Enrique Goñik eta presidente Jose Antonio Asiainek? Zein ustezko dokumentu egin behar ziren publiko? Ez da Cervera auzia, CAN auzia da, eta bere kudeatzaile politikoena.

Juan Mari Arregi



Asiako hondartzetara doaz hiltzera gure itsasontzi zaharrak

Urtean 800 itsasontzi handi kondentzen dira txatarretara munduan. %80 lehorreratzten dituzte Bangladesh, India, Pakistan eta beste eskualde txiroetako hondartzetan, non ez legerik eta ez lotsarik ezagutzen ez duten konpainientzako milaka gizonek eraitsi behar dituzten morrontzazko baldintza ikaragarrietan.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

IRONEATERS, JENDE BURDINJALEA, da dokumental bat 2007an Shaheen Dill-Riazek idatzi eta zuzendua. Itsasoari hain loturik bizi den Euskal Herrian ez da ezagunegia Europako eta oro har mundu aberatseko ontzioletan eraikitako pakebote handien hiltegiatiko bizimodua kontatzen duen film hau.

Bangladesh. Herria ez da gai bere umeak elikatzeke. Euriteak, idorteak, lurraren higadura... Bangladesh iparraldeko baserriarrek gehiago ezin eta hegorantz jo behar dute lan eske. Ugazabek badakite zein larri dabiltzan, edozer onartuko dietela. Horrela ikusiko dituzu milaka gizon txiki ontzi izugarri handiak ataltzen inolako ekipamendurik gabe. Oinetako barik burdina zorrotzen artean. Ortotsik eta esku huska xaflak garraiatzen.

Hemen ez da ez kaskorik, apenas eskularrurik, ez betaurrekorik, ezta metala ebakitzen sopletez ari baldin bazara ere. Haluzinagarria baldin bada oinezkoak ikustea ontzia lehorreratzten marea baliatuz sokatik tiraka, gisa bereko itxuragabekeria gehiago erakutsiko dizu dokumentalak behin eta berriro: trasatlantiko, *ferry* edo *cargo* erraldoiaren zati bat osorik erortzen hareatzara, gaineko obreroa broman igeltseroa bezala teila batek alde egindakoan “behetik kableari tiraka ari direnek

daukate arazoa, ez guk, ja, ja”... Ia edozertara jartzen da gizakia.

Jatorriz *Eisenfresser* –produkzioa alemana baita– deitu dokumentalaren hiru minutuko trailerra ikusgai dago NGO Shipbreaking Platform koordinadoraren gunean. Kontrastetako bat ikusiko duzu langileei jornalaren zati bat ukatzen, eta kamerari esplikatzten: “Arazoa da orain pagatzen badiet, etxera itzuliko direla, ni langilerik gabe utzita. Ulertzen duzu? Horregatik atxiki behar diet soldata”.

Misterio handiagorik ez da sisteman. Milakak edozer irentsi behar dute zerbait lortzeko, gutxi batzuek nahi dutena egin diezaiekete. Ugazabok saltzen dizkiete haiei itsas bazterreko lan aldian behar dituzten oheak eta janariak ere. Europako XIX. mendea Asiako XXI.lean.

NGO Shipbreaking Platform delakoak koordinatzen ditu ontzi-eraiketaren inguruan dabiltzan Gobernuz Kanpoko Erakundeak. Bilgune anitza, tartean badirelako sindikatuak, giza eskubideen aldekoak eta ekologistak. Hauen artean Zero Waste Europe, Zero Zabor mugimendua alegia.

Europako plataforma gisa sortua, mundu osora zabaldu da. Plataformak elkarlanean jarri ditu txartategiok dauzkaten herrialdeetako elkarteak, ontzien jabe diren kon-

NGO Shipbreaking Platform koordinadoraren webgunetik ateratako argazkian, YPSAk sinatzen duena, eraisten ari diren itsasontzietako batetik gazteak burdinazko xafla astuna eramaten, Bangladesheko Chittagong eskualdeko hondartza batean, 2009an. Zenbat urte ditu bigarrenak, guztien artean eskularrua daraman bakarrak? Lanean batere ekipamendurik gabe ari direnontzietan kontrastea egiten du ur bazterrean dautzan erraldoi mekanikoen neurriekin. XXI. mendeko eskulabon bizimoduaz *Burdinjaleak* filma egin duen Shaheen Dill-Riazek ondorio hau atera zuen bukatutakoan: “Gehien hunkitu ninduen zera izan zen, ohartzea zapalketa sistema honen arauak oinarrituta daudela gu denok barruan gauzkan sistema ekonomiko beraren printzipioetan. Filmean ikus daiteke arauok noraino eraman gaitzaketen”.

painiak dauden herrietakoak eta ontzien garraioaren kontsumitzaile direnetakoak.

Off the beach! (Kanpora hondartzatik!) kanpaina burutzen du urteotan plataformak. “Hondartzetara ontziak eramatea dago arazo handi guztion sorburuan: kutsadura larria, lan baldintza arriskutsuak, langileen zarpaketa, eta hondakin lanjerosentzako nazioarteak daukan legediaren urraketa nabarmena”.

Metal astuna esan duzu?

Europar Batasunak kalkulaturik omen dauka urtero Europatik Asiako hegoaldeko *ontzi-bilerrietara* bidalitako pakeboteek 40.000 tonatik gora gai toxiko daramatela barruan, tartean 3.000 tona amianto edo asbesto. Horiek birziklatzen, horrela deitzea zilegi balitz, ari diren beharginen bostetik bat 15 urte baino gutxiagoko nerabea da.

Lanean hildakoen kopuru ziurrik inork ez daki, ehunka seguru eta milatik gora seguruago. Soilik kontatuz istripuetan hilak. Zeren langileon biziraupena 40 urtekoa omen da. Ondoko urteetan bizirik dirautenek minbizi eta beste hainbat eritasun nozitu beharko dituzte, esku huska darabiltzaten pozoien erruz.

Baforetzarrotan edonon dago amianto, gaur Europan *martzianoz* jantzitako espezialistek kentzen



itsas industriaren kontrolik eza da gakoetako bat. Itsasontzia erraz aldatzen dute izenez, jabez eta banderaz. Indiako ur bazterrean iristen bada Saint Kitts-Neviseko ikurrina daraman mamutzar bat, nori hasi kontuak eskatzen?

Flags of convenience deitzen zaie, komeni arau usatu daitezkeen banderoi. NGO Shipbreaking Platform koordinadora horiek kontrolatzea sartzen du *Off the beach!* kanpainaren barruan. Zaila dauketa aitortzen dute. Orain arte, Basileako itunaren arabera, esportatzaileak bermatu behar zituen itsasontziaren baldintzak, txartategira iristerako kutsadura nagusiak kenduak zaizkiola. Baina 2009an Hong Kongen hitzartutako akordioak are libreago utziko dizkie eskuak itsas konpainiei, kontrol teorikoa azken bandera daraman herrialdeari dagokiolako, ez benetako arduradunari.

dutena baina Bangladeshen itsas bazterreko esklabook etxolatarako ere usatzen dutena.

Barku handiotan nonahi bada beruna, merkurioa, kadmioa, zinka, klase orotako metal astunak. Azidoak zer esanik ez. Eta olioia, motor erraldoiak hozten aritutako olio putzuak. Eta pinturek, isolatzaileek, edergarriek, kableak estaltzeko plastikoeak eta beste mila gaik berez daramatzaten produktuak, gehi horiek berotzean sortutako bestelakoak: hidrokarbuo aromatiko poliziklikoak, PCBak, TBTak...

Munduko pozoi guztiak biltzen dituzte herriak bezain konplexuak izan diren munstro metalikook. Hauen birziklatzaileak txingurriak bezala saiatzen dira eguneko bi euro

baino gutxiago kobratuz. Batzuetan otordu truke, besterik gabe. Ez da kontraturik, ez asegururik, are gutxiago sindikaturik.

Gizonoz gain inguruko jendeek ere nozitzen dituzte lantegi kutsakorren pozoiak. Isurketen inolako kontrolik ez da. Nolaz, bada, eremu jakin mugaturik ere ez baldin badute? Hondartza bat aukeratzen da, marearekin ontzia lehorreratu eta ekin.

Olio, hauts eta gainerako kimikoekin eskualde osoak kutsatu dituzte. Bazterretako manglar aberatsak ebaki behar dira lanerako. Arrantzaileak porrotera doaz kutsadurarekin. Inguruko nekazarien lurrak hondatzen dira.

Iparreko hondakin kutsagarriak hego txirora esportatzeko katean

Plataformak urteroko informeekin batera plazaratzen ditu Asiara bidalitako ehunka ontziorren zerrerdak. Nabarmenenei jarraipen zehatza egiten die, jabe, izen eta bandera aldaketak salatuz.

Garaipen distiratsua ere lortu badute taldeok. Frantziak 2005ean Indiarra igorriarik *Clemenceau* hegazkin-ontzia, hedabideek hainbeste harrotu izanak behartu zuen Indiako Gobernua handik igortzera erraieran zeramatzan 700 tona amianto eta guzti. Frantziako agintariek berriz Europara ekarriarik, Ingalaterrako Ableko ontziolan eraitsi zuten *Clemenceau* 2009an. ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Garantia.

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu,
produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com · www.zinkunegioptika.com



Xabier Letona

◆ ARGIAKO ZUZENDARIA



DANI BLANCO

Aukera bikaina naziogintzarako

EAE-KO herritarrek badute lehendakari berria, Iñigo Urkullu. Baina Urkullu ez da euskal gizarteko lehendakaria, Ibarretxe lehendakariak behin eta berriz errepikatzen zuen gisan. Ona litzateke Urkulluk behin eta berriz harri berean estropezurik ez egitea. Lurrak oihuka dio ez dela euskal herritar guztien lehendakaria.

Baina Iñigo Urkullu da goreneko erreferentzia instituzionala gainerako lurraldeetako abertzaleentzat ere. Hori ere kontuan hartu beharko du Urkulluk, erakargarri izateko beste lurraldeak bere horretan aintzat hartzea ezinbestekoa baita. Gainera, interresgarriena ez da erakartzea, elkarrekin zerbait erakargarria eskaintzea baizik. Nazioa egiteko talaia bikainean da lehendakari berria, abertzale batentzat egungo pribilegiatuena seguruenik. Nazio-jorran aritzeko une biribila da begien aurrean.

Ez da erretorika, naziogintzarako aukera bikaina da krisia. Bake prozesu bat gauzatu beharra ere bai, besteak beste, datozen urteetan elkarbizitzarako oinarritzko zutabe berriak finkatuko direlako. Eta zeintzuk dira naziogintzaren beharrik larrienak egun? Bat, lana sortu eta banatu (eta bitartean, krisiaren ondorioak banatu eta partekatu); bi, bake prozesua gauzatu; hiru, euskal nortasunaren defentsa eta garapena.

Euskal hiru esparru administratiboetan ari dira gertatzen mugimendu interesgarriak. Ipar Euskal Herrian txikitasunetik nola egin behar den lan erakusten digute egunero, hainbat esparrutan gainera: nekazaritzan, bestelako gizartearen eraikuntzan, Elkargoaren aldarrikapenean, Baionako Bake Foroaren eraikuntzan... Hegoaldetik begiratuta, harrigarria

da ikustea hain jende desberdina hainbat helburu eta aldarrikapeneen gurdia tiraka.

NAFARROAN ere badira mugimendu interesgarri ugari, bai kalean eta baita instituzioetan. Kaleak oso era esperantzagarrian egin du bor-bor hainbatetan, agian greba orokor deialdietan ikusi da argien hori, baina ohikoan ere langile eta sektore asko ari dira galbidean diren eskubideen aldeko borrokan. Izango al du horrek eraginik hurrengo hauteskundeetan?

PP bakarrik batuko da gurdira, euskal gizartearen presioak eta presio instituzionalak horretara behartzen dutenean

Pentsatzekoa da baietz, eta gainera, UPNk bere kongresua martxora aurreratu ondoren, bolo-bolo dabil aurreratuko direla. Aspaldiko partez, oposizioak gobernua eskuratzeko aukera izango du itxura guztien arabera. Gaitza PSN UPN-ren uztarririk aske irudikatzea, ezta? Baina hori da alderdi garrantzitsu gisa bizirik irauteko duen aukera bakarretakoa. Ezkerra, baskismoa eta abertzaletasuna, horra alternatibaren lapikoan berriz egosi beharreko osagaiak. Bere garaian arrakastatsua izan zen NaBai, eta epe laburrean ere hala izan beharko luke, ez hauteskunde koalizio moduan egituratua, baina bai gobernu alternatibari begira.

Orduan, Roberto Jimenez lehendakari? Gaitza, halako arrai-narekin PSNk nekez aterako duelako behar adina boto, baina ez dirudi oraingoan nafar sozialisten baitatik beste Fernando Purasik ager litekeenik. Datozen asteetan

asko hitz egingo da balizko alternatiba honen inguruan eta nola egituratu ahal izango litzatekeen. Dena gaitza, baina dena posible.

ETA EAE-N? Hasteko, jeltzaleek autogobernuaren inguruko mugimenduak agindu dituzte legealdi bukaerarako, eta hori bera kilikagarrria da kontuan hartuta PSE-PP bikotearekin azken lau urteetan autogobernu gaietan izandako monotonia. Estatus berriaren iragarpena, inoizko Legebiltzar independentzia zaleenean. Urrats berriak noiz eta azken 30 urteetako Madril zentralista eta inposatzaileenean. Bai, txinpartak ikusteko aukera handiak dira, areago 2014an Katalunian autodeterminazio eskubidearen erreferenduma egingo bada.


Aukerak bai, baina logikoena da estatusak eragindako txinparta handirik ez ikustea. 50 urteko biolentzia zikloa ez da alferrik iragan eta hemen bake prozesua gauzatu behar da lehenik. Iraganari begiratu, nork bere jarduerak aztertu eta kritikatu, heldu biktima guztien gaiari, presoei, estatusari... eta elkar bizitzaren zutoina berriak jarri. Ezin da independentziarik egin 600 preso kartzelan utzita. Gero gerokoak.

Urkulluk prozesu horren puntan egon behar du, baina ez bakarrik. EAJ, EH Bildu eta PSOEn prozesu partekatua izan behar du, Eusko Legebiltzarrean bai, baina ez hor bakarrik. Baionako Foroak unibertsitate batetik etor daitezkeen balore garrantzitsuenetakoak jaurti zituen iragan astean: bakea eta kohesioa. PP bakarrik batuko da gurdira, euskal gizartearen presioak eta presio instituzionalak horretara behartzen dutenean. ■



ASTE HONETAKO

zozketak



Arbelaitz Jatetxea

Afaria
bi lagunentzat

Mikeletegi pasealekua, 53
Donostia GIPUZKOA

www.arbelaitz.com

1

Ekain berri



Ekainberri

6 harpidunentzat
bina sarrera

Portale, 9
Zestoa GIPUZKOA

www.ekainberri.com

2



Bilboko Euskal Museoa

5 harpidunentzat
bina sarrera

Miguel de Unamuno plaza, 4
Bilbo BIZKAIA

www.euskal-museoa.org

3



Artium Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa

4 harpidunentzat
bina sarrera

Frantzia, 24
Gasteiz ARABA

www.artium.org

4



Egutegia 2013

5 ale opari

www.argia.com

5

AZKEN IRABAZLEAK (2348. Argia)

EKAINBERRI

- Mikel Garmendia Aizpuru (Bilbo)
- Iñaki Urbistondo Plazaola (Azpeitia)
- Eneko Etxebarria Uriarte (Agurain)
- Joxin Iturriotz Ostolaza (Azpeitia)
- Olaia Elortza Iñarra (Zegama)
- Mikel Leturiaga Gorrotxategi (Zarautz)

EUSKAL MUSEOA

- Julen Gorostizaga Elu (Arrankudiaga)
- Alberto Los Arcos Fernandez (Aras)
- Santurtziko Udal Euskaltegia (Santurtzi)
- Felipe Iruretagoiena Elortza (Zarautz)
- Fernando Bustillo Maestro (Donostia)

JORGE OTEIZA Fundazio Museoa

- Anoetako Udal Liburutegia (Anoeta)
- Ana M. Zubiarremerteria (Eibar)
- Sabina Arruabarrena Sukia (Hondarribia)
- Joxe Mari Ibarburu Arotzena (Donostia)
- Eva Ruiz de Galarreta Crespo (Noain, Elortzibar)

ARTIUM Arte Garaikideko Euskal-Zentro Museoa

- Iruñezar Aek Euskaltegia (Iruñea)
- Gotzon Apaolaza Bernedo (Lasarte-Oria)
- Lorenzo Zubeldia Aierbe (Lizartza)
- Miren Garcia Dalmau (Hernani)
- Ander Epelde Ezenarro (Soraluze)

KIROLAZ BADAKIT

- Imanol Lazkano Uranga (Azpeitia)
- German Kortabarria Igartua (Getxo)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com

www.argia.com/gunea

Gunea

argia





ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

Aitzearra, 1
Zumartegi industrialdea
☎ 943 37 11 50
20170 Usurbil (Gipuzkoa)
www.atxegajauregia.com

